



Landare inbaditzaileak ugaritu dira azkenaldian; hala, aniztasun biologikoa galtzeko arriskua dago. ▶22



Vitoria-Gasteiz itzulpen-saria irabazi du Joseba Santxo idazle algortarrak: «ikastetxeak dira irakurzaletasuna gehien bultzatzen dutenak». ▶16

hiruka

Uribe Kostako astekaria



43. zenbakia

2015eko
abenduaren 18tik
urtarrilaren 13ra arte

Olentzero eta Mari Domingi, atoan berton

Eskualdeko umeak zain dituzte; ondoetorria egin gura diote bikoteari. Kalejiran joango dira herri gehienetan, abenduaren 24an. ▶12-13



KULTURA URIBE KOSTA

Antzerkia eta musika

Jaiegunotan antzerkia edukiko dute herri askotan txikienek; oster, helduek, Gabon-kantakaz goatzeko aukera izango dute, zenbait kontzertutan. ▶ 11/14



HERRIZ HERRI PLENTZIA ETA ERANDIO

Bertso-saio ibiltariak

Plentzia eta Erandio girotzeko asmoz, bertso-jira musikatuak egingo dituzte abenduaren 18an eta 26an, hurrenez hurren. Plentzian, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga bertsolariak ibiliko dira kantuan, 19:30etik aurrera, Elizako plazatik abiatuta. Erandion, 13:00etan hasiko dira kantatzen Amets Arzallus eta Jone Uria bertsolariak, Altzagako La Plaza tabernatik abiatuta. Saio bietan, Oxabi erromeria-taldeak joko du. ▶ 6/9

KULTURA BERANGO ETA SOPELA

Errusiarrak dantzan

▶ 11



Oporraldiaz gozatu, eta **urte berri on, irakurle!** Hurrengo hitzordua: urtarrilaren 14an

Familiarteian euskaraz egiteko proiektua, prest

«Olgetan euskaraz»

egitasmoa martxan ipiniko dute berriro ere urtarrilean; abenduan bete beharra dago izen-ematea.

Aste joka dago 2016a. Horregaz batera, familian kantatzeko eta jolasteko «Olgetan euskaraz» egitasmoa abiatuko dute berriro urte hasieran, Sendi proiektuak, Egizu Getxo Euskadun elkartearen eta Getxoko Udalaren arteko elkarlanak bultzatuta.

Urtarrilean, Getxoko «Olgetan euskaraz» ekimenak 6 urte beteko ditu. Urte horietan guztietan, familia euskaldunei kantatzeko eta jolasteko baliabideak eskaintzeaz gainera, hizkuntza-ohituretan eragiten lagundu gura izan die Sendik egitasmo horregaz. «Euskaraz oraindik ez dakiten familiei, baliabideak eman nahi dizkiegu euskarara hurbil daitezen, motibazioa piztu, alegia», azaldu dute antolatzaileek. Horretarako, iaz legez, mota biko



Urtarrilaren 12an hasiko da «Olgetan euskaraz» egitasmoa.

taldeak antolatu dituzte: guraso edo heldu euskaldunak dituzten taldeak, eta guraso erdaldunek ere parte hartzen dutenak. Taldeok Gobela ikastolan, Itzubaltzeta/Romoko ikastetxean, San Nikolas ikastolan eta Zabala ikastetxean batuko dira.

Horietan parte hartu ahal izateko, aldeztu aurretik, izena eman beharra dago; abendua amaitu arte egongo da

horretarako aukera. Ostera, taldeak urtarrilaren 12tik martxoaren 17ra batuko dira, astean behin, ordubetez jolasteko eta kantatzeko, 17:15etik 18:15era, edo 18:15etik 19:15era.

Lagun gutxiko taldeak osatuko dituzte: 4-5 guraso, umeak eta dinamizatzaile bat. Umeek 2 eta 5 urte artekoak izan behar dutela ohartarazi dute. ◀

info+: sendigetxo@yahoo.com / 685 732 963

Musika Eskolarako 200.000 euro eskatu ditu PPK Jaurlaritzan

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan Andres Isasi Udal Musika Eskolarako diru-laguntza sartzea eskatu du Getxoko PPK; besteak beste, familientzako elkargune bat sortzea ere eskatu du. Iñaki Gamero bozeramaile popularrak azaldu duenez, musika-eskola horrentzat 200.000 euroko laguntza eskatzen duen zuzenketa aurkeztu du EAren aurrekontuetan. «Legez, Eusko Jaurlaritzak udal musika-eskolen aurrekontuen %33 lagundu behar du diruz. Hala ere, inoiz ez du jarri zenbateko hori osorik», salatu du Gamero.

Familientzako elkarguneari dagokionez, popularrek gogoratu dute 2010etik daroatela espazio hori aldarrikatzen, «zerbitzu hori martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetara aurkeztu genuen zuzenketa bat onartzea lortu genuenetik, hain zuzen ere». Era berean, azaldu dute, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Getxoko Udalak elkargune hori sortzeko «egin beharreko ekintzak» egitea onartu zuten iragan ekainean.

Horretarako, Getxoko popularrek 250.000 euroko aurrekontu-saila bideratzea eskatu du Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetarako. ◀

«Desordena publikoak» egotzita, 9 getxoztar auzipetuta

Espainiako Auzitegi Nazionalan euzai-saioa eten eta Herri Harresia irudikatu zuten Ernai eta Topatuko zortzi kidek, iragan maiatzean egin-dako epaiketan. Ekintza haren harira, akusatuen aulkian zeuden zortziak eta publikoan zeuden lagun denak inputatu dituzte. Cosladako (Madril) epaitegiak auzipetu gisa deitu ditu deklaratzera 50 lagun, horien artean 9

getxoztar, Espainiako Auzitegi Nazionalen «desordena publikoak» eragitea egotzita. Euskal Herrian deklaritzen dabilta inputatuak; batzuek egin dute daborduko; beste batzuk, ordea, hori egiteko zain daude oraindino. Ekintza horregaz, «epaiketa politikoen behin betiko etetea exijitu» gura izan zutela gogorarazi dute epaituak izan ziren zortzi gazteek. ◀



Aste Berdean antolatutako txori-lekuen gaineko tailer-ean, neska-mutilek egindako 20 habia-kutxa ipini dituzte Getxoko hainbat lekutan; horiek babesleku izango dira hegaztientzat. Habia-kutxa bakoitza zenbaki batez identifikatu dute, horregaz nork egin duen jakiteko.

Gure URTEURRENA zurekin ospatu gura dugul!

%25eko beherapena produktu guztietan!

UNISA

89,90€ **67,43€**

179,90€ **134,90€**

135€ **101,25€**

UNISA

MABE

MODA ETA APAINGARRIAK

Tel.: 944 60 02 58

100% MABE COMPLEMENTOS

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Getxo

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Gabonetarako, auzoz auzo

Abenduaren 19tik aurrera, ekitaldi eta aukera ugari egongo dira Getxon Gabonak gozatzeko: Getxolandia, kalejirak, antzerkiak, bertsolariak, Olentzerori harrerak...



Abenduaren 24an ikusi ahal izango da Olentzero auzoz auzo.

Ekitaldi batzuk

Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era

11:00-14:00 / 17:00-21:00 Getxolandia, Areetako Xake plazan.

Abenduak 19, zapatua

Neguri-Gobela
18:00 Kalejira

19:00 Abestiak, txistulariak, trikitia, gaztainak eta txokolatea.

Abenduak 23, eguaztena

Itzubaltzeta/Romo

17:30 Umeentzako tailerrak, San Jose elizan.

18:00 Olentzerori gutunak, San Jose elizan.

Andra Mari

18:00 Txitxi-burruntzia, txistulariak, trikitia eta fanfarrea, Malakate parkean.

Areeta

18:30 Haur-antzerkia, Eskoletako plazan.

Algorta

20:00 Kale-animazioa, Taberna Ibiltaria taldeagaz kantuz kantu.

Abenduak 24, eguena

Andra Mari

17:00 Olentzerogaz kalejira... Malakaten.

Itzubaltzeta/Romo

17:30 Olentzerogaz kalejira; panpina erre.

19:30 «Presoen Olentzero», Brankatik.

Areeta

11:30 Olentzerori harrera, Bizkaiko Zubian.

13:00 Bertsolariak, ALBEren ekimenez.

18:30 Kalejira, eta Berantzagi dantza-taldearen emanaldia.

Algorta

17:30 Olentzeroren kalejira, Benantziotik.

Ostalaritza-guneen ordutegia luzatu egingo dute Gabonetan

Udalaren ordutegi-araudiak baimentzen duen gehienekora zabaldu ahal izango dute udalerriko ostalaritza-lokalek urtarrilaren 6ra arte. Hala, abenduaren 18, 19, 24, 25, 26 eta 31n eta urtarrilaren 1, 2 eta 5ean (bariku, zapatu eta jai-bezperak) 2. taldeko lokalak (kafetegiak eta tabernak, besteak beste) 04:30era arte zabaldu ahal izango dute; 3. taldekoak (pub eta klubak) 06:00etan itxi ahal izan-

go dute; eta 4. taldekoak (diskotekak) 08:00etan. Gabonetako gainerako egunetan, 2. taldekoak 03:00ak arte zabaldu ahal izango dute; 3. taldekoak, 04:30era arte; eta 4. taldekoak, 06:30era arte. Bestalde, aipaturiko ordutegiaren luzatze horrek ez du eraginik izango terretzetan. Horiek 09:00etatik 23:00etara arte zabalik egoteko baimena izango dute; bariku eta jai-bezperetan, berriz, 24:00etan itxi beharko dituzte. ◀

Gabonetako azoka berezia antolatu du Quetenquek

Altzariak zaharberritzen dituen Algortako Quetenque tailerrak Gabonetako merkatua antolatu du abenduaren 20rako, domeka. Txiskiena kaleko 2. zenbakiko egoitzan egingo dute azoka berezi hori, Algortako Sagardotegiaren ondoan, hain zuen ere; goizeko 10:00etatik 15:00etara. Bertan, moda, dekorazioa, osagarriak, kirola eta gastronomia izango dute oi-

narri salgaiek. Horiez gainera, zuzeneko musika, ipuin-kontalaria eta pintxo-potea egongo dira aukeran.

Hori dena gozatu gura dutenek, abenduaren 20an egoitzara bertaratu baino ez dute behar izango; izan ere, Gabonetako azoka horretarako sarrera doakoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. ◀

info+: www.quetenque.es

Milaka opari zain dituzu Getxon

Miles de regalos te esperan en Getxo

Aurki itzazu Getxoko 1.200etik gora saltokietan, eta eska iezaiozu zurea Getxopari magikoei!

Encuéntralos en los más de 1.200 establecimientos de Getxo ¡y pide el tuyo a los mágicos Getxoparis!

Zorionak!

¡Feliz Navidad!

Getxo **Getxon daukazu!**

Getxo



Getxo Elkartegian egingo duten ekitaldian banatu zituzten sariak. GETXOKO UDALA

Boluntarioak saritu dituzte

Diego Lastrak eta Ziztu Bizian Eskaut Taldeak jaso dute urteko pertsona eta elkarte boluntarioaren sariak.

Diego Lastrak eta Ziztu Bizian Eskaut Taldeak jaso dituzte 2015eko pertsona eta elkarte boluntarioaren sariak, hurrenez hurren. Getxoko erakunde boluntarioen Sarekide elkarteak banatu zituen sariak, Udalaren babesagaz. Aurtun, pertsona boluntarioaren saria berezia izan da, *in memoriam* eman ziotelako iragan abuztuan Baztango abentura-parke batean istripuz hil zen Diego Lastrari. Saria Oscar Martinez bere lehengusuak jaso zuen. Las-

tra Zuzenbidean lizentziaduna zen, eta garun-paralisia zeukan, 86ko ezintasuna eragiten ziona; 15 urte eman zituen boluntario Fekoor federazioan eta Bizkelean.

Bestalde, Ziztu Bizian taldearen ize-nean, Begoña de las Herasek jaso zuen saria. Taldeak 23 urte daroatza lanean Itzubaltzeta/Romon; neska-mutilen arteko berdintasuna sustatzen du, eta aberasgarritzat jotzen ditu desberdintasunak eta aniztasuna. Guztiontzako aukera berdineko gizartearen aldeko apustua egiten du taldeak, eta, aldi berean, gizarte solidario, naturarekiko errespetutsua, eta inguruarekiko konprometituen aldekoa ere bada. Gaur egun, 12 boluntariok osatzen dute Ziztu Bizian. ◀

Urtarrilaren 15era arte justifikatu ahal izango dira GLLak

Datorren urtarrilaren 15era arte izango dute getxoxtarrek 2015ean jasotako Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) guztiak justifikatzeko epea. Diru-laguntza horiek justifikatzeko emandako kontzeptuaren ordainagiriak edo fakturak aurkeztu behar dituzte egun hori baino lehen.

Getxoko Udalak gogoratu duenez, «oso garrantzitsua» da jasotako laguntzen justifikazioa «behar bezala» egitea. Izan ere, hori ez egitekotan, Udalak itzultze-prozesua martxan ipiniko baitu. Hala, eskatutako agiri guztiak norberari dagokion Gizarte Zerbitzuen bulegoan aurkeztu beharra dagoela adierazi dute udal agintariek. ◀

info+: www.getxo.eus

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiak kenkari fiskalak izango ditu

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu berri du 2016rako lehentasunezkoztat jotzen diren jardueren zerrenda berria jasotzen duen dekretua. Jarduera horiek lehentasunezkoztat deklaratu, ekimen horietarako dohaintzak egiten dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek pizgarri fiskalak izango dituzte PFEZn (dohaintzaren %18 eta %30 arteko kenkaria) eta Sozietateen gaineko Zergan (dohaintzaren zenbatekoaren %18 kenkaria). Zerrenda horrek 75 ekimen jasotzen ditu, bost arlotan: kirola, gazteria, kultura-ondarea, euskara eta kultura-zabalkundea. Haietariko asko aurrekoetan onartutako zerrendetan agertzen dira, berbarako Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdia. ◀

Leioa

Umeek kulunka eta zabu berriak dituzte aukeran Mendibilen

Leioako Udalak Mendibile inguruko Umeei irailean eman zien hitza bete du, oraintsu. Jolas-parkea «zahartuta zegoela ikusirik», jolastokia berritzea eta «bertaratzen diren txikiei aukera berriak ematea» agindu zuen. Enpresa hornitzailearen arazoak gorabehera, daborduko zabalik dago kulunka eta zabu berrien eremua, Bizkaiko jostailu berrienakaz. Udalak garrantzia eman die gurasoek txikienakaz kulunka partekatu ahal izateari, torlojuak begi-bistan ez egoteari eta ukimenari. Orain, parkea estali gura du Udal Gobernuak. ◀

Leioabusa Leioandi eta Sarrienatik igarotzea gura dute

Leioako hainbat auzokide sinadurak batzen hasi da Leioabusa udal garraio publikoaren ibilbidea aldatzea eskatzeko. Auzotarren nahia da autobus urdinak Leioandi eta Sarriena auzoetara hurbiltzea eta bertan galekuak izan ditzala. Sinadurak bilduta, eskakizuna helaraziko diote Udal Gobernuari urtarrilean. Bitartean, autobus-linea berriak sortzeko plana lantzen dabil Udala, EAJk eta PSE-EEk azaroko Udalbatzan jakinarazi zuten. EH Bilduk eskatu zien Leioandi eta Torresolora behin-behineko zerbitzua ipintzea, plana onartu bitartean. ◀



Bizilagunen artean egoteko eta jendea ezagutzeko aukera ere bada azoka. © HERRIGUNE LEIOA

Zapatuan, Kontsumo Iraunkorraren Azoka

Objektuen bizitza luzatzea eta berrerabiltzea helburu, leioaztarrek gonbidatu dituzte Euskal Etxeen plazara.

Zapatuan, hilaren 19an, Kontsumo Iraunkorraren Azoka egingo da, hamabigarren urtez. Goizeko 11:30etik 14:00etara, Euskal Etxeen plazan (Izarraren Plaza) leioaztarrek erabiltzen ez dituzten objektuak uzteko aukera izango dute, baita gura edo behar dituztenak eskuratzeko ere, gai horretaz gogoeta egiteaz gainera.

Ekimena Leioako Ekotaldeak antolatatu du. Kolektibo hori 16 eta 22 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Kontsumo Iraunkorraren Azoka bideratzeko Solasgunearen laguntza izango dute, eragile biak hamaika urtez elkarlanean baitabilta. Azoka berriro martxan ipintzeko arrazoia honakoa da: «Leioako hiritarrok etxeetan inolako erabilpenik eman gabe pilatzen ditugun objektu horiei guztiei bizitza luzatzeko aukera ematea». Izan ere, kontsumo-espiralaren aurrean, egundoko

aukera da partekatzeko, esperientzia komunitarioa bizitzeko eta «beste mundu bat (benetan) posible dela» frogatzeko.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, «ez da trukaketa hutsa hemen proposatzen dena, hori baino askoz ere gehiago da: gauzek sortzen duten beharizana, horixe balio dute. Niri balio ez didan hori beste pertsona baten zatitza behar-beharrezkoa izan daiteke. Nahi duzun guztia ekartzeko aprobe-tza dezakezu egun hori. Zure irizpidea aske utziz: jantziak, liburuak, musika, altzariak, zapatak, apaingarriak, jostailuak... Ezertarako ezta inorentzako balio ez duela pentsatu arren, gogoratu beste pertsona batzuei balio ahal diela. Hori bai: saiatu objektuak egokira onean egon daitezen». Jakinarazi dutenez, zerbait hartzeko ez da beharrezkoa izango bertan ezer uztea. ◀



Umeeek antzerkia edukiko dute bost egunean, Kultur Leioan. © PINTTO PINTTO - ANITA MARAVILLAS

Gabonak gozatzeko hamaika aukera

Jai-egun hauetaz gozatzeko, egitarau zabala egongo da aurtenera Leioan; ohi den legez, gehienak umeei zuzendutakoak izango dira: antzezlanak, ipuin-kontalariak, Gabonetako parkea... Baina zalanza barik, Olentzero eta Mari Domingi berriro ikusteak egiten die ilusio handien txikiei. Kultur Sailak, elkarteak, Lamiakoko Txikiak Txiki Dantza Tal-

deak, Auzotarrok Kultur Elkarteak eta Bifor jai-batzordeak gogor egin dute behar urte osoan, herriko auzoetan ikazkin zaharrak eta bere laguntzaileek merezi duten ondoetorria prestatzeko. Herrigunean, Lamiakon, San Bartolomen eta Txorierrin egingo dituzte kalejirak zein harrera-ekitaldiak abenduaren 24an. ◀

info+: www.kulturleioa.com

Hautesleek utzitako dirua bueltatzen hasi da Esnatu Leioa

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetako kanpaina finantzatzeko, hainbat herritarren laguntza jaso zuen Esnatu Leioa alderdiak; auzokideek utzitako dirua bueltatzeko moduan daudela adierazi dute talde ezkertiarreko kideek. «Hori guztia dagokigun hauteskundeetako gastuetarako diru-laguntzagaz itzultzeko asmoa geneukan; baina, begi bistan denez, atzeratu egingo da subentzioa». Kontuak horrela, «Udaletik jasotako dirua eta zinegotzien ekarpenak» baliatuko dituzte jasotako «mikrokredituak» atzera emateko. Finantzatzaileen esku, helbide elektroniko bat ipini du Esnatu Leioak; norberak bere kontu korronte zenbakia bidali beharko du bertara, eta alderdiak diru-sarrera egingo dio.

Udal hauteskundeei begira, Ahal Dugu-k (Podemos) zabaldu zuen otsailaren 10eko batzar irekirako deialdia; astebate beranduago Esnatu Leioa ize-na jarri zioten hautagaitzari. Maiatzaren 24ko bozetan, 2.356 boto (%16,74) eta lau zinegotzi eskuratu zituen. ◀

harremanetarako: esnatuleioa@gmail.com

Bizkaiko Kultur Txartela truka daiteke Kultur Leioan

Bizkaiko Kultur Txartela erabiliz, Kultur Leioako bazkide egiteko eta bertan egongo diren ikuskizunetarako sarrerak erosteko aukera egongo da Gabonetan; daborduko erakunde leioaztarreko lagun direnek bazkide-tza berritu ahal izango dute. Horrez gainera, Kultur Leioan erabiltzeko 40 euroko bonua lor dezakete horiek guztiek. Bizkaiko Kultur Txartela ur-

tarrilaren 27ra arte egongo da salgai, Kutxabanken kutxazain eta sistemen bitartez; euskarazko ikuskizunetarako 24 euro ordaindu beharko dituzte, eta 28 euro, beste hizkuntza batean dauden saioetarako. Lurralde mailako agiria urtarrilaren 31ra arte trukatu ahal izango da Kultur Leioan, eta epe bera dago bertoko bazkide egiteko. ◀

info+: www.kulturleioa.com

Egitaraua

Abenduak 23, eguaztena

18:00 Gaztaina erreka, Boulevardean. Doan.

Abenduak 24, eguena

17:00 Herrigunean, Olentzeroren kalejira Elexalde Errotatik Kultur Leioara.

17:30 Lamiakon, Olentzeroren kalejira auzoan, metro-geltokian hasita.

18:00 San Bartolomen, Olentzerori harrera bertoko kulturunean.

18:00 Txorierrin, Olentzeroren kalejira auzoan zehar, bertoko kulturguneraino.

Abenduaren 24ra arte

09:00-21:00 Olentzerorentzako gutunak Kultur Leioan uzteko aukera.

Abenduaren 26tik 30era

18:00 Gabonetan Antzerkira umeentzako antzezlan-zikloa, Kultur Leioan. Saio bakoitza: 5 euro (bonua: 20 euro).

Abenduak 31, eguena

12:00 Umeentzako Gabon zaharreko kanpakiak, Boulevardean. Leioako Merkatarien Elkartek antolatuta.

Urtarrilaren 2tik 5era

10:30-14:00 / 16:30-19:30 Gabonetako parkea, Kandelazubietan. Ludoteka eta tailerrez gainera, magia, ipuin-kontalariak, Aldundiko suhiltzaileak eta disko-festa egongo dira. Sarrera, doan.

Urtarrilak 2 eta 3

18:00 Ipuin-kontalariak, Kultur Leioan. Gonbidapenagaz, 946 072 576 telefono zenbakira deituta.

Urtarrilak 5, zapatua

18:30 Errege Magoei harrera, Sakonetan.



Begire nago begire

JOSU ESNAOLA ARANGUREN
Helduen euskalduntzean irakasle

Aitorpena eta esker ona, adjektibo barik

Aitortu behar dut. Ez dut batere gustuko euskaldun zahar / euskaldun berri dikotomia. Espainiako historia ikastea ezagutu genituen kristau zahar eta kristau berri kontzeptuak datozkit burura. Lehenak odol garbikoak, bigarrenak odol nahasikoak; lehenak jendartean prestigioa zutenak, bigarrenak baztertuak eta beti susmopean.

Euskarara ekarrita, lehenak benetako euskara darabiltenak, bigarrenak asmatutako euskara berria (batua) erabiltzen dutenak; lehenak euskara adierazkorra darabiltenak, bigarrenak gatzik gabeko euskara txepela egiten dutenak; lehenak euskaraz zuzen berba egiten dutenak, bigarrenak euskara traketsa edo mordoiloa darabiltenak.

Aitortu behar dut. Itzel poztu nintzen jakin nuenean Euskararen Nazioarteko Egunean euskaldun berriei egindako ahalegina aitortuko zitzaiela. Izan ere, ez da makala pertsona horiek egin behar izan duten eta egiten ari diren lana. Lehenengo eta behin, orduak eta orduak emanek euskara ikasten, horretan dirutza utziz bide batez. Eta ondoren, inguruko erdaldunen aurrean euren burua zuzitzen, eguneroko bizitzan hizkuntza berri hori erabili ahal izateko esparruak bilatzen, euskaldun zahar askoren gutxiespenei aurre egiten...

Bitartean, euskara etxean jaso dugunon artean, zenbatek egin dugu halako ahalegina geure euskara aberasten eta erabilerara esparru berriak zabaltzen? Zenbatek egin dugu ahaleginik txikiena zuengana hurbildu eta euskalduntzeko bidaian bidelagun izaten?

Aitortu behar dut. Miresten zaituztet. Zuek arnasberritu duzue gure hizkuntza. Zuek erakutsi diguzue noraino hel gaitzekin lanaren eta ahaleginaren bidez. Zuek bai zuek euskaldun. Eskerrik asko eman diguzuen guztiagatik. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Erandio



Olentzero hilaren 23an hurbilduko da Erandiogoikora. © GOI-ALDE

Txikiak, Mari Domingi eta Olentzeroren zain

Olentzero, Mari Domingi eta Gabonetako oporren zain daude daborduko Erandioko neska-mutilak. Gertu daukate hirurak, hamaika jolasegaz batera.

Abenduaren 18tik urtarrilaren 5era bitartean, hamaika antzezlan, film, tailer, jolas, eta Mari Domingi zein Olentzeroren ekitaldi izango dituzte aukeran Erandioko ume, gazte zein helduek. Gabonetako ohiko tradizioari dagokionez, Mari Domingi eta Olentzero udalerriko lau auzotan izango direla baieztatu dute, baina baliteke azken orduan saio gehiagotara hurbil-

tzea. Kontuak hala, abenduaren 23an, eguaztenean, Kukullarran eta Erandiogoikoan izango dira. Astrabuduko eta Altzagako hiriguneetara, osteraren 24an joango dira, umeakaz egon, haien gutunak batu, eta ohiko kalejiretan parte hartzera.

Altzagan, Olentzero bateratua
Aspaldidanik lehenengo aldiz, Altzagan Mari Domingi eta Olentzeroren

etorrera bakarra eta bateratua prestatzen dihardute hainbat eragileren artean, besoz beso. Hilaren 24ko ekimena sustatzen dabilta, besteak beste, Jado ikastetxearen eta Altzaga ikastolako Ikasleen Guraso Elkarteak, Uztargi dantza-taldea, Gautxoriak, Erandioko Gazte Asanblada, Erandio Kantagunea eta Erandioko Udalak. Nork bere harri koxkorra ekarrita, talde ezberdinek emaitza hobe baten aldeko apustua egin dute, neska-mutilei, gazteei, helduei eta beteranoei Gabonez gozatzeko aukera gozoagoa eta beteagoa eskainiko dietelakoan. ◀

Egitaraua

Abenduak 18, barikua

19:00 Erandioko Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua, Josu Muruetan.

19:00 Herriko elkartearen txakolin-tailerra, Erandiogoikoko gizarte-etxean. Euskaraz. Doan.

Abenduak 19, zapatua

17:00 Haur-zinema: *Inside Out (Del Reves)*, Josu Murueta plazan. 2€.

19:00 Takolos irrati-klubaren Gabonetako photocall-a, Josu Murueta plazan. Doan.

Abenduak 19 eta 20

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak, Erandiogoikoko gizarte-etxean. Zapatuan, magia-ikuskizuna egingo dute, 19:00etan, euskaraz. Doan.

Abenduak 20, domeka

17:30 Umeentzako diskoteka ibiltaria, Erandiogoikoko Euskadi plazan. Doan.

Abenduak 21, astelehena

Egun osoan Gabon Postal Lehiaketaren erakusketa, urtarrilaren 6ra arte, Josu Muruetan. Doan.

Abenduak 22, martitza

18:00 Erandioko Emakumeen Elkartearen Gabonetako jaia, Azoka zaharrean. Doan.

Abenduak 23, eguaztana

17:00 Gabon-jaia, Kukullarrako frontoi txikian.

18:30 Olentzeroren kalejira, Erandiogoikotik.

19:30 Olentzeroren etorrera, Kukullarran.

Abenduak 24, eguna

17:00 Olentzerori harrera, Azoka zaharrean.

18:00 Kalejira, Astrabuduko Ignacio Aldekoa ikastetxetik Mendiguren plazara.

18:30 Kalejira, Azoka zaharretik udaletxera.

20:00 Antzezpena, Irailaren 23a plazan.

Abenduaren 26tik 30era

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeentzako Gabonetako Parkea UGP, Altzaga kiroldegian. Doan.

19:30 Umeentzako antzerkia (domekan, dantzaldia), Azoka zaharrean. Euskaraz. 2 €.

Abenduak 27, domeka

10:00 Elikagai Bankuaren aldeko Athletic Goitikoren martxa, Josu Murueta plazatik.

Urtarrilaren 2tik 5era

11:00-14:00 / 16:00-19:00 UGP, Astrabuduko kiroldegian.

19:30 Umeentzako antzerkia (zapatuan, magia-ikuskizuna) Josu Muruetan. Hilaren 5eko, saioa 13:00etan da. Euskaraz. 2€.

Jone Uria eta Amets Arzallus, bertso-jiraren protagonistak

Gabonetako ohiko osagai da Altzagan Berbots euskara-taldeak ALBEGaz batera antolatutako bertso-jira musikatua. Aurten, Jone Uria eta Amets Arzallus bertsolariek jardungo dute, Oxabi erromeria-taldearen doinupean. Hitzordua abenduaren 26an ipini dute, zapatuan, 13:00etan, Irailaren 23a plazako La Plaza tabernatik abiatuko dira. ◀



Gabonetako hainbat egunetan ez da ibiliko Erandiobusa

Gabonetako jaiak direla-eta, Erandiobusaren zerbitzuan hainbat aldaketa izango dira datozen asteotan; erabiltzaileek kontuan hartu behar dituzte. Abenduaren 24an eta 31n, zerbitzua 20:00etan etengo da. Beraz, Enekuritik zein Martiartu dorretxetik ordu horretan abiatuko da azken irteera. Abenduaren 25ean, eta urtarrilaren 1ean eta 6an, Gabon egunean,

Urteberri egunean eta Errege Magoen egunean, Erandiobusa ez da udalerri-ibiliko, zerbitzua erabat etenda egongo baita egun horietan. Gabonetako bestelako egunetan, udalerriko autobus lineak ez du aldaketarik izango, eta ohiko maiztasuna izango du. Halere, Erandioko Udalak barkamena eskatu du aldaketa horiek sor ditzaketen eragozpenengatik. ◀

Sopela

Gabon kulturalak barikuan abiatuko dira



Kurtzio kultur etxean hamaika ekitaldi antolatu dute asteotarako. Gainera, ezin gal ditzakezu Gabonetako Parkea, eta Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira.

Gabonetan aspertzeko astirik ez da egongo Sopelan. Gabonetako Parkea, Olentzero eta Mari Domingi zein Erregeen harrerez gainera, Kurtzio Kultur Etxeak ekitaldien egitarau oparoa prestatu du sopoloztarrentzat. Ekimenen artean nabarmentzekoa da Euskal Gabon kanten ikuskizuna. Juantxo Zeberio Etxetxipiak, jazz eta abesbatza uztartuz, Eguberri Umama egitasmoaren baitan sortutako hirugarren proiektua aurkeztuko du Kurtzion. Euskal Gabon-kanta

tradizionalak, jazz laukote batez lagunduta, eta aparteko bakarlariakaz: Sopelako Urepel abesbatza. Txiki-txikitatik entzun eta abestu ditugun Gabon-kanta kuttunen aukeraketa bat egin dute, kontzertu zoragarria eskaini asmoz. Daborduko, ikuskizuna prestatzen dabilta Kurtzio kultur etxean; hilaren 18an izango da, 20:00etan, eta 3 euroan eros daitezke sarrerak.

Gabonetako Parkea

Baina, esan legez, Kultur Etxearen

egitarauaz gainera, beste jarduera batzuek gozatzeko aukera egongo da Sopelan: batetik, Gabonetako Parkea ipiniko dute Urko kiroldegian, abenduaren 28tik 30era, 12 urte bitarteko umei zuzenduta. Halere, familia osoarentzako ekintzak ere egongo dira. Gainera, hiru ikuskizun ere prestatu dituzte: saltsa-dantzaldia, Nai Malabarista eta Imaginarite magia ikuskizuna. Parkea 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute, eta sartzea doakoa

Kurtzio kultur etxeko egitaraua

Abenduak 18, barikua

20:00 Eguberri Umama: Euskal Gabon kantak. Sarrera: 3 euro.

Abenduak 20, domeka

18:00 Zinema: *Dixie eta matxinada zontia*. Sarrera, doan.

Abenduak 23, eguaztena

18:00 Gabonetan... kontaidazu musikaz. Sarrera: 3/5 euro.

Abenduak 26, zapatua

18:00 Antzerkia: *Faboo*. Sarrera: 3/5 euro.

Abenduak 27, domeka

18:00 Antzerkia: *Pintxo Pintxo*. Sarrera: 3/5 euro.

Urtarrilak 1, barikua

13:00 Urte Barri Barri ekitaldia. Sarrera, doan.

Urtarrilak 2, zapatua

19:00 Asier Kidam magoa. Sarrera: 3/5 euro.

Urtarrilak 3, domeka

18:00 Zirkua: *Karoli, el hombre rueda*. Sarrera: 3/5 euro.

Urtarrilak 4, astelehena

18:00 eta 19:30 Ballet errusiarra: *Txano Gorritxo*. Sarrera: 3/5 euro

izango da; ume bakoitzeko, heldu bakarra sartu ahal izango da. Bestetik, Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira egingo da abenduaren 24an, 17:00etan. Urgitxieta plazatik udaletxeraino joango dira, Sopelako Pandero-joleek, kantariak, eta Meñakoz eta Eguzkilore dantza-taldeak lagunduta. Udaletxeko plazan sua isiotuko dute, eta urte osoan gordetako makilatxoak erre ostean, umeek Olentzerogaz eta Mari Domingigaz berba egiteko aukera izango dute.

Azkenik, Errege Magoei harrera egingo diete urtarrilaren 5ean. Kalejira ere egingo da Urgitxieta plazatik udaletxeraino, 18:00etan. ◀



Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



DIDAK hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF. 94 676 30 12 - info@didakhamilton.com

Berango

Berango Antzokia: bost urtez kulturaren erakusleihu

Udalerrian eskaintza kulturala sustatzeaz gainera, azpiegitura hori bertako hainbat talderen erakusleihu izan da. Abenduaren 19an, zapatuan, urteurren-jaialdia egingo dute.



Urtez urte gero eta bisitari gehiago hartu ditu Berango Antzokiak.

Berango Antzokiak bost urte bete ditu aurtun. Urtemuga hori ospatzeko, urteurren-jaialdia antolatu dute abenduaren 19rako, zapatuan. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Berango Antzokian bertan, eta Berangoko Emakumearen Elkarteak, Nagusien Abesbatzak, Musika Eskolak, Kultur Etxeko Dantza Modernoko taldeak eta ACADAeko Txirlora Antzerki Taldeak parte hartuko dute ospakizunean, Fernando Ansoleaga ACADAE Arte Eszenikoen Lagunen Kultur Elkarteke zuzendariak azaldu duenez. Taldeek ikuskizun bana aurkeztuko dute; hala, bertaratutako auzokideek kontzertuez, abestaldeez, dantza modernoek eta antzerkiez gozatzeko aukera izango dute, besteak beste. «Berangoko hainbat talderen erakusleihu izango da egun horretan Antzokia», iragarri du Ansoleagak.

Berango Antzokiak lehenengoz ateak zabaldu zituenetik gaur egunera arte igarotako bost urteak «biziak» izan direla dio Anabel Landa Berango-

ko alkateak; «programazioa oso anitza izan da, eta auzokideen zein kanpoko udalerrietako herritarren erantzuna oso handia izan da». Alkatearen arabera, Antzokia «beharrezko azpiegitura» da; izan ere, azpiegitura horrek obrak, ikuskizunak, kontzertuak, abestaldeak eta dantzaldiak har ditzake, eta ondorioz, «udalerriko eskaintza kulturala areagotzea ekarri du». Horren harira, Izaskun Zubiaur Kulturazinegotziaren berbetan, «oso atsegina da ikustea hasiera batean egindako inbertsioak erantzuna izan duela, eta etekin kulturala eta soziala oso handia izan dela».

Udalak balorazio «oso positiboa» egin du bost urteotan Antzokiak izan duen eraginaz. Alkateak azaltzen duenez, partehartzea «oso garrantzitsua» izan da, «bertoko taldeek ikuskizunak aurkeztu dituztenean batez ere»; kasu horietan, leku guztiak bete izan dira. «Argi dago Antzokiak euren lanak aurkezteko aukera ematen diela bertoko taldeei», adierazi du Landak.

Ansoleagaren berbetan, Berango Antzokiak «alternatiba kulturala» eskaini dio herriari. Datuak ikusita, badirudi lortu duela: 2011n 6.000 pertsona inguruk bisitatu zuten azpiegitura hori, bertako eskaintzaz gozatzeko asmoz. Hurrengo urtean, 7.400 lagun hurbildu ziren, eta 2013an eta 2014an, berriz, 7.500 baino gehiago. ◀

Adin nagusi, gazte zein txikientzako hamaika jarduera egongo dira aukeran Gabonetan

Inguruko gainontzeko udalerrietan legez, Gabonak ospatzeko eskaintza berezia antolatu du Udalak Berangoko herritarrentzat. Abenduaren 18tik urtarrilaren 5era arte, adin nagusi, gazte zein umeentzako eskaintza askotarikoa izango da.

Abenduaren 18an, barikuan, emango diote hasiera Gabonetako egitarauari, Otxandategi abestaldearen emanaldiagaz. Berango Antzokian izango da kontzertua; sarrera, doan. Abenduaren 21ean eta 22an, Gabonetako pilota-txapelketaren final laurdenak jokatuko dituzte frontoian, 19:30ean. Hurrengo egunean, hilaren 23an, berriz, *Rock Eroak* ikuskizuna eskainiko dute pailazoei Berango Antzokian, euro batean, 18:00etan. Egun berean, frontoian gazteentzako Gabonetako parkea egongo da aukeran, 18:00etatik 21:00etara. Eguberri bezperan, hilaren 24an, Olentzeroren kalejira egingo dute, kultur etxetik abiatuta frontoira arteko ibilbidea egiteko, 18:30etik aurrera. Abenduaren 26an, zapatuan, musikaren ordua izango

da; Gospel saioa izango da Berango Antzokian; sarrera, euro batean. Hurrengo egunean, domekan, ostera, Otxandategi Dantza Taldeko neska-mutil txikiek ikuskizuna egingo dute 12:30ean, Berango Antzokian; sarrera, doan. Egun berean, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia egongo da leku berean, baina 18:00etan; sarrera, euro batean. Abenduaren 28an, pilota berriro ere, Gabonetako txapelketaren finalerdiak jokatuko dituzte frontoian, 19:30etik aurrera. Hilaren 29an eta 30ean, berriz, haur-parkea jarriko dute frontoian. Urteko azken egunean, ordea, hilaren 31n, Gabonetako pilota txapelketaren finalak jokatuko dituzte, 18:00etatik aurrera.

Urtarrilaren 2an eta 3an, Ilusiones antzerki musikala eta Errusiako Ballet Taldearen ikuskizunak egongo dira aukeran Berango Antzokian, hurrenez hurren. Lehenengo saioa 19:00etan izango da, euro batean; bigarrena, berriz, 18:00etan, eta 3 euroren truke. Urtarrilaren 5ean, Errege Magoen desfilea egingo dute, 19:30ean. ◀

Ekitaldi batzuk

Abenduak 18, barikua

20:00 Otxandategi abestaldearen emanaldia, Berango Antzokian, doan.

Abenduaren 21ean eta 22an

19:30 Gabonetako pilota-txapelketa, final laurdenak, frontoian.

Abenduak 23, eguaztena

18:00-21:00 Gabonetako gazte-parkea, frontoian.

Abenduak 24, eguena

18:30 Olentzeroren kalejira, kultur etxetik frontoiraino.

Abenduaren 29 eta 30ean

11:00-13:00 / 17:00-20:00 Haur-parkea, frontoian.

Abenduak 31, eguena

18:00 Gabonetako pilota txapelketako finalak, frontoian.

Urtarrilak 5, martitzena

19:30 Errege Magoen kabalgata, kultur etxetik frontoira.

Ostean Disko-festa, DJ Xaiborregaz.

Baliteke urtarrilean onartzea berdintasun ordenantza Udalean

Esti Anitua Valles Uribe Kostako Mankomunitateko teknikariak jakinarazi duenez, eskualdean 2012tik dabilta berdintasunerako ordenantzak osatzeko lanean. 2014an, lau herri txikitan onartu zituzten ordenantza horiek. Aurtun, Gorlizkoa izan da, eta Berangon zein Sopelan hori onartzeko lanean dabilta, baita Mankomunitatean ere. Bada, iragan azaroaren 26an berdintasunerako ordenantzaren zirriborroa landu zuten Berangoko Udalean, Berdintasuna, Gizarte Ongizatea eta Mankomunitateko Galetarako Informazio Batzordean. Aspalditik landutako gaia da, eta beste informazio-batzorde batean landu ostean, urtarileko osoko bilkuran Udalbatzak onartzea aurreikusi du Anabel Landa Berangoko alkateak.

Bizkaiko 16 udaletan dago martxan berdintasunerako ordenantza bat. Guztira, tokiko zazpi erakundek onartu dute: Arratiako Mankomunitatea eta Abadiñoko Udala kenduta, besteak Uribe Kostakoak dira: Barrika, Gorliz, Leioiz, Plentzia eta Urdulizko udalak. ◀

Plentzia

Gurutze Gorria zegoen lekuan, geltokiaren sarrera egin gura dute

Metro Bilbaoren

geltokiaren sarrera-irteera Gurutze Gorriaren eraikina zegoen lekuan egitea aurreikusten du BGPK.

Pasa den abenduaren 1ean abiatu zituzten Metro Bilbaoren Plentziako geltokiaren ondoan zeuden Gurutze Gorriaren eta -20 tabernaren eraikinak botatzeko lanak. Eraikin horiek biak aurri-zorian zeudela adierazi zuen Plentziako Udalak, eta ez zutela inolako babes-elementurik. Eraisketa lan horietarako 12.000 euro bideratu dituzte. Lanok ez dute eragirik izan geltokiaren inguruan.

Eraikin bi horiek eraitsi ostean, inguru horretan «printzipioz» ez dutela ezer egingo jakinarazi du David Crestelo Plentziako alkateak: «ingurua as-



Abenduaren 1ean hasi ziren eraikin biak botatzeko lanak.

faltatu, eta ondo utziko dute, besterik ez». Hala ere, Metro Bilbaoko Plentziako geltokiaren sarrera eta irteera eraikin bi horiek zeuden lekuan egitea da Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) asmoa; hala iragarri du behintzat alkateak. Dena den, oraindino

zehazteke dago noiz egingo dituzten obra horiek. Alabaina, hedabide batzuek argitaratu dutenez, 2016an bideratuko lituzkete lan horiek.

Bien bitartean, taxilariak erabiliko dute eremu hori, euren zerbitzua eskaintzeko. ◀

Egaña eta Iturriaga bertso-jiran barikuan, eta zirku-tailerra urtariletik aurrera

Gabon egitarauari hasiera emateko eta udalerria girotzeko, bertso-jira musikatua egingo dute abenduaren 18an, barikuan. Horretarako, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga bertsolariak gonbidatu dituzte, eta hitzordua 19:30ean ipini dute, Elizako plazan, hortik abiatuko da ibilbidea. Bertsoak gozatzeaz gainera, bertan egongo dira Oxabi erromeriako partaideak ere, Plentziako kaleak eta bertsoei musika-doinuak jartzeko.

Zirku-tailerra, urtariletik aurrera

Urtariletik ekainera bitartean, 2004 eta 2007 bitartean jaiotako neska-mutilei begirako zirku-tailerra egingo dute Plentziako Eskolan. Hitzorduak barikuetan izango dira, 17:00etatik 18:30era arte. Horietan parte hartzeko izena eman daiteke abenduaren 30era arte, Goñi Portalen. ◀

Lana bilatzen ikasteko tailerra antolatu du Plentziako Udalak

Adituek diotenez, lanpostu bat bilatzeko modurik eraginkorrena da, jardun baino lehen, berau prestatzea. Ildo horretan, Plentziako Udalak lana bilatzeko tailer praktikoa antolatu du urtarrilaren 11tik 14ra arte. Ikastaroa Goñi Portalen eskainiko dute, baina, oraindino ez dute ordutegia zehaztu. Hala ere, horretan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, hilaren 18a baino lehenago. Horretarako, udal webgunean dagoen izen-emate orria bete, eta Goñi Portalen bertan aurkeztu beharko dute.

Tailer horretan, lanpostu bat bilatzeko orduan, norberak hartu behar

duen jarrera zein izan behar duen irakatsiko dute. Gainera, norberaren motibazioak eta balioa ezagutzeko aukera emango dute, egindako ibilbide profesionala, ezagutza eta konpetentziak balioan jarritz. Era berean, curriculum eraginkor eta erakargarri bat zelan egin erakutsiko dute. Halaber, lan-elkarrizketa bat egiterako orduan, norberaren informazioa modu eraginkor batean komunikatu eta lan-arrazkak zelan helarazi ikasi ahal izango dute. Azkenik, bakoitzaren profilari egokitzen zaizkion lan-ekaintzak bilatzeko teknika eraginkorrak ezagutaraziko dituzte, besteak beste. ◀

info+: www.plentzia.org

Aurrekontua zelan dagoen ezagutarazi gura du Udalak

Udalak aurrekontuen berri eman unahi die herritarrei. Agintariak azaltzen dutenez, aurrekontuaren nondik norakoak ezagutarazi gura dituzte, zertan datzan, zenbat diru daukan, zein zor dauden, eta zertan gastatuko duen dirua, besteak beste. Horretarako, bilera irekiak egiten hasi dira udalerriko hainbat lekutan. Hurrengo saioa, eta azkena, hilaren 21ean izango da, astelehenean, 19:30ean, Saratxagan. ◀



Azken bilera hilaren 21ean egingo du Udalak.

PiE, itsas-ikerketarako Europako azpiegituraren parte

European Marine Biological Resource Centre (EMBRC) itsas-ikerketarako Europako azpiegitura handiari bultzada eman dio Plentziako Itsas Estazioak (PiE), beste 23 zentro gaz batera. EMBRC zentroan diharduten 9 herrialdeetako zientzia ordezkariak eta ministroek estatutuak eta lehenengo aurrekontua onetsi zituzten azaroan Bilbon eta Plentzian, zentroari legezko esta-

tusa emate aldera. Hurrengo eta azken urratsa legez ERIC (Ikerkuntzako Azpiegiturarako Europako Partzuergoa) ikerkuntzako azpiegitura gisa sortzea da; horretarako, baina, Europako Batzordeak oniritzia eman behar du.

Denera 24 ikerketa zentrok osatzen dute azpiegitura hori, eta Espainiako nodoa EHUKo PiE-k eta Vigoko Unibertsitateko ECIMATEk osatzen dute. ◀

Danontzat gaztetxeak badu zer ospatu oraindino ere

Bere hirugarren urtemuga ospatzeko ekitaldietan murgilduta dago egunotan Plentziako Danontzat gaztetxea. Hilaren 11n hasi zituzten ospakizunak, baina oraindino ere badago zer egin gune autogestionatuan.

Hilaren 18an Euskal Herriko musikaren inguruko hausnarketa egingo dute, 19:00etan, «Musika Euskal Herrian: iragana, oraina eta etorkizuna» izeneko mahai-inguruagaz. Horretan, Josu Larrinaga EHUKo irakasleak gidatuta, honakoek parte hartuko dute: Juanxo Arakama (Glaukoma), Txerra Bolinaga (RIP), Oliba Gorriak taldeak eta Taupaka elkarteak, besteak beste. Hurrengo egunean, zapatuan, egun osoko egitaraua prestatu dute: *Lip*



Dub-a grabatuko dute 19:00etan; ondoren, 20:30ean «txalapoteoan» ibiliko dira, jarraian, 21:45ean, ekitaldia egiteko. Gauean, 22:00etan, triapak asetzeko afaria egingo dute, eta azkenik, DJ Jo Ta Txok musika ipiniko du, 00:30etik aurrera. ◀

Uribe Kosta

Tximinietan suteak ekiditeko neurriak hartzeko eskatu dute

Aurtengoa negu gorriegoa ez bada ere (momentuz behintzat), etxeko tximiniak isiotzen diren sasoia da. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak gogorazi du «beharrezkoa» dela suteak ekiditeko neurriak hartzea. Urtero, temperaturek behera egiten dutenean, eta batez ere «urtarrilean, otsailean eta martxoan pizten dira sute gehien» etxeetan, tximiniak egoera egokian ez daudelako. Tximiniak erabiltzen ez direnean, hondakinak metatzen dira barruan, eta ondorioz, errazagoa da istripuak gertatzea berriro isiotzen direnean; Suhiltzaile Zerbitzuak 62 esku-hartze erregistratu zituen pasa den



urtean. Horiek erraz ekidin zitezkeela diote, mantentze-neurri egokiak hartuta, berbarako: tximinien egoera berrikustea, eta azkenekoz piztu zenetik, barruko hondakinak kenduta. ◀

Birziklatzearen «beharraz» ohartarazten dabilta

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea birziklapena sustatzeko triptikoak banatzen dabil kalez kale; orri-banatzaileek, orriak emateaz gainera, birziklapenaren inguruan herri-tarrek izan ditzaketen zalantzak argituko dituzte. Orri horiek ondo azaltzen dute edukiontzi bakoitzean zer bota daitekeen eta zer ez. Halaber, panel-dun triziklo baten bidez egingo dute banaketa. Panelaren alde batean, bigarren eskuko objektuen online merkatuaren informazioa ere azalduko dute (www.aukeraon.net); beste aldean, berriz, birziklapenaren gainera. Abenduaren 19ra arte iraungo du

«Birziklatu zalantzarik gabe» goiburupeko kanpaina horrek.

Autoa izateko modu berria

Birziklatzea sustatzeaz gainera, Mankomunitateak Ukanauto zerbitzua ipini du berriro du martxan. Horregaz, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten herrietan dauden 7 ibilgailu erabiltzeko aukera emango dute, berauen ugazaba izan behar barik. Arduradunek azaldu dutenez, «hobeto bizitzeko ingurumen baten alde egin nahi da, autoen beharra gutxitu eta garraio publikoaren alde eginaz». ◀

harremanetarako: info@ukanauto.com

Eskaintza zabala Gabonetan



Etxeko txikiak Olentzero eta Mari Domingi ikusi ahal izango dituzte Uribe Kostan.

Olentzero eta Mari Domingi ezagutzeko hamaika aukera egongo dira egunotan Uribe Kostako herri eta auzoetan.

Gabon-oporraldia gainean dugu, aisialdia norberak gura legez gozatzeko hamaika jarduera eta ekitaldi antolatu dituzte eskualdean Uribe Kostako udal, eragile, elkarte eta erakunde ezberdinek.

Urteko azkenengo ospakizun aldia dira Gabonak, gainera hurrengo urteko lehenengoak ere bai. Hori dela-eta, urtea ondo amaitu eta berriari ondortoria modu egokian emateko, etxeko

neska-mutil txikiak gozamenerako jarduera ugari egongo dira aukeran, baita Olentzero eta Mari Domingi aurrez ezagutzeko eta gutunak emateko aukerak ere, eta opariren bat edo beste jasotzeko tartea ere bai, besteak beste. Plentzian eta Gorkizen, gainera, Errege Magoak ere ikusi ahal izango dituzte neska-mutilek.

Horrez gainera, hain txikiak ez direnentzako ekimenak ere antolatu dituzte eskualdean, berbarako bertso-saioak, kantaldiak, film-proiektzioak, liburu-forumak eta kalejirak.

Ekimen horiekaz guztiakaz, Uribe Kostako herritarrak alaitzeaz gainera, udalerriak girotzeko helburua dute antolatzaile guztiek. ◀

Ekitaldi batzuk herriz herri

Barrika

Abenduak 23, eguaztena

17:30 Gutun eta makillaje tailerrak, liburutegian.

18:30 Ipuin-kontalaria, frontoian.

19:00 Euskal dantzak, frontoian.

19:30 Olentzeroren jaitsiera, frontoitik abiatuta.

Abenduak 27, domeka

12:00 Gospel kontzertua The Lord taldeagaz, Andra Mari elizan.

Abenduak 28, astelehena

18:00 Liburu-foruma, liburutegian. Gertukok antolatzen du.

Abenduak 29, martitzena

17:00 *Big Hero* filmaren proiektzioa, Ander Deuna kultur aretoan.

Gorkiz

Abenduak 22, martitzena

17:00-19:00 Gabonetako eskutitzak, Ludotekan.

Abenduak 23, eguaztena

10:00-12:00 Gabonetako zuhaitza, Ludotekan.

Abenduak 24, eguena

Goizez Gabon-kantak Lirain abesbatzagaz, herriko kaleetan.

18:00 Kalejira Olentzero eta Mari Domingigaz, Aratz dantza-taldeak lagunduta, Ibarreta plazatik abiatuta.

18:30 Olentzero eta Mari Domingiri harrera, pilotalekuan.

Urtarrilak 5, martitzena

18:30 Errege Magoen desfilea, Eleiz enparantzatik abiatuta. Gluten bako, arrautza bako, laktosa bako eta esne proteinarik bako gozokiak banatuko dituzte.

Lemoiz

Abenduak 24, eguena

17:00 Olentzero eta Mari Domingiri ondoetorria Andran, Rufino enparantzan.

17:30 Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira Armintzan, kalejira auzoko kaleetatik. Frontoian, Olentzerok gutunak hartuko ditu eta opariak banatuko dizkie umeei.

18:30 Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira Urizarren, udaletxe zaharraren aurretik abiatuta. Ostean, antzerkia, gaitaina-dastaketa.

Abenduak 26, zapatua

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Ume eta gazteentzako parkea, Armintzako frontoian: puzgarriak, ludoteka, pirata-puzgarria, dantza, bideo-jokoen txokoa, tailerrak, disko-festa eta txokolate-banaketa.

Abenduak 28, astelehena

17:30 Txoborro magoa, Urizarreko gelan.

Abenduak 29, martitzena

17:30 Ume eta gazteentzako tailerra, Armintzako kultur etxean.

Abenduak 30, eguaztena

17:30 Kulunkantauri ipuin-kontaketa, Urizarreko gelan.

Urtarrilak 2, zapatua

12:30 Ume eta gazteentzako tailerra, Armintzako kultur etxean.

Plentzia

Adi! Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra arte, arrastietan ez da ludoteka zerbitzurik egongo.

Abenduaren 28tik urtarrilaren 8ra arte

Gabon postalen V. lehiaketako lanen erakusketa, Goñi Portalen.

Abenduak 18, barikua

19:30 Bertso-jira musikatua Andoni Egaña eta Unai Iturriaga bertsolariakaz, eta Oxabiren erromeriagaz; Eleiz enparantzatik abiatuta.

Abenduak 19, zapatua

19:00 Plentziako Kantagune taldearen «kantujira», Eleiz enparantzatik abiatuta.

Abenduak 24, eguena

12:30 Gabon postalen V. lehiaketako sari-banaketa, Goñi Portalen.

18:30 Zubiaren ondoko plazatxotik abiatuta, Olentzeroren kalejira, Eleiz enparantzaraino.

19:30 Euskal mitologiako pertsonaiakaz, antzezpena, Eleiz enparantzan.

Urtarrilak 5, martitzena

20:00 Errege Magoen desfilea, Gorkizen hasi eta Plentziako Astilleron amaituko da. Gluten gabeko, arrautza gabeko, laktosa gabeko eta esne proteinarik gabeko gozokiak banatuko dituzte.

Urduliz

Abenduak 24, eguena

18:00 Olentzeroren kalejira, futbol-zelai zaharreko aparkalekutik (Igeltsera) abiatuta, Elortza eskolara.



Aktoreek eta txotxongiloek Acab kapitainaren historia kontatuko digute *Moby Dick* antzezlanean. © GORAKADA

Gabon antzeztuak

Uribe Kosta eskualdean, 19 antzerki-emanaldi izango dira Gabonetan, gehienak umeentzat. Berango, Erandio, Getxo, Leioa eta Sopelak hartuko dituzte saio denak.

Gabonak urrezko aroa da antzerkigintzarentzat, behintzat Uribe Kostan. Abenduaren 20tik urtarrilaren 9ra, 19 antzerki-emanaldi izango dira eskualdean. Umeentzako kontakizunak eta antzezlan euskaldunak izango dira osagai nagusiak. Ahalegin berezia egin dute eskola-oporrei begira Erandioko Kultura Sailak, Kultur Leioak eta Getxo eta Sopelako kultur etxeek. Lau

erakunde horiek ziklo bana antolatu dute. Erandioko Udal Kultura Sailak Txikien Txanda ekimenaren barruan kokatu ditu antzezlanak. Urtarrileko Astrabuduko saio biak euskaraz izango dira, eta Altzagako bost antzezlantatik lau gure hizkuntzan izango dira, eta bosgarrena, *Chefs*, mutua.

Getxoko Kultur Etxeak saio bana antolatu du euskaraz, mutua eta gaztelaniaz. Azken hori publiko helduari

zuzendutakoa da. Kultur Leioak, ostera, Gabonetan Antzerkira dinamika isiotu du, eta neska-mutilentzako eta sendientzako programazioa antolatu du, euskarazko eta hizkuntzarik bako bost antzezlanen bitartez.

Berangoko kasuan, aldiz, azpimarratzekoa da *Ilusiones* musika-antzezlana ikustera joango direnek sarrera sinbolikoa (euro bakarra) ordaintzean lagunduko dutelako kanpaleku sahararretan izandako uholdeen kalteak konpontzen.

Azkenik, aipatzekoa da Anita Maravillasen *Pinto, Pinto* lana hiru herritan izango dela ikusgai. ◀

Antzezlanak

Abenduak 20, domeka

19:30 *Yendo*, Getxoko Utopian aretoan.

Abenduak 26, zapatua

18:00 *Moby Dick*, 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat, Kultur Leioan. 5€.

18:00 *Faboo, el encanto de la imaginación*, Sopelako Kurtzion. 3 € umeak / 5 € helduak.

19:30 *Erpurutxo*, 7 eta 11 urte bitarteko umeentzat, Erandioko Azoka zaharrean. 2€.

Abenduak 27, domeka

18:00 *Kontu Kantari*, sendientzako txotxongilo-antzezlana, Kultur Leioan. 5€.

18:00 *Pinto, Pinto*, 3 urtetik gorako umeentzat, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro (umeak) / 5 euro (helduak).

Abenduak 28, astelehena

18:00 *Pinto, Pinto*, 3 urtetik gorako umeentzat, Areetako Andres Isasin. 5€.

18:00 *Burbujas de papel*, 3 urtetik gorako umeentzat, Kultur Leioan. 5€.

19:30 *Magia lapurra*, 5 urtetik gorako umeentzat, Erandioko Azoka zaharrean. 2€.

Abenduak 29, martitzena

18:00 *Martes*, Areetako Andres Isasin. 5€.

18:00 *Gaueko entziklopedia koxkorra*, 3 urtetik gorako umeentzat, Kultur Leioan. 4€.

19:30 *Astokilo Zirkus*, 2 urtetik gorako umeentzat, Erandioko Azoka zaharrean. 2€.

Abenduak 30, eguaztena

18:00 *Pinto, Pinto*, 3 urtetik gorako umeentzat, Kultur Leioan. 5€.

19:30 *Hiru txerri txoak*, 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat, Erandioko Azoka zaharrean. 2€.

Urtarrilak 2, zapatua

19:00 *Ilusiones*, Berango antzokian. 1€.

Urtarrilak 3, domeka

19:30 *Azken eguzkiloa*, 3 urtetik gorako umeentzat, Astrabuduko Josu Muruetan. 2€.

Urtarrilak 4, astelehena

19:30 *Sustrai biziak*, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat, Astrabuduko Josu Muruetan. 2€.

Urtarrilak 9, zapatua

20:00 *Chefs*, Erandioko Azoka zaharrean. 5€.

20:00 *Mejor viuda que mal casada*, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12€.

Areetan *Arraun the World* dokumentala, ikusgai

Datorren martitzenean, abenduak 22, *Olentzero Munduan Arraun the World* film dokumentala ikusteko aukera izango da Areetan. Hitzordua 19:00etan ipini dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emanaldia doakoa da, baina gonbidapena beharrezkoa da bertara sartzeko. 18:00etatik aurrera, gonbidapena hartu ahal izango da eraikin horren txarteldegian.

Iñigo Iraultza *Iru* aktore itzualtzeak zuzendu du dokumentala. Bertan, Olentzeroren iloba gisa lau kontinentetara egindako bidaiak batu ditu. Bidaia horien jatorria izan ziren Euskal Herrian bizi diren familia etor-

kinen opari eta bideo-mezuak, Olentzeroren bilobak euren senideei jaioterrian banatu zizkienak. Dokumentala gauzatu ahal izateko, bost urteko ahalgina egin dute Iraultzak, Iñigo Grijalba gizarte-langile leioztarrak, Mikel Ramirez gidoilari bilbotarrak eta Markel Redondo argazkilari leioztarrak.

Bitartean, oraindino bada aukera *Arraun the World: Olentzeroren ilobaren abenturak* izeneko argazki-erakusketa ikusteko. Fotografiak zapatura arte egongo dira ikusgai Algortako Azokako aretoan. Barikuan, 08:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuan, berriz, goizez baino ez da egongo zabalik. ◀

Ballet errusiarra biran, Berangon eta Sopelan

Gabonen eta Urte Berriaren bueltan Euskal Herrian izango da Errusiako Maria Gusarenko Ballet Gaztea. Besteak beste, Berango eta Sopela bisitatuko ditu, urtarrilaren 3an eta 4an, hurrenez hurren. Balletak *Txanogorritxoren Urte Berriko abenturak* animaziozko filmaren dantza-egokitzapena eskainiko du Uribe Kostan, miniaturak eta ballet klasiko eta garai-kidearen koreografiak erakutsiz. Izan ere, ikuskizuna «musikaren, gaztetasunaren eta edertasunaren festa da», antolatzaileen arabera.

Urtarrilaren 3an, domekan, saio bakarra izango da Berango Antzokian, 18:00etan. Sarrerak 3 euroan eros dai-

tezke. Batuko den dirua Saharara bidaliko dute, bertan izandako uholdeen kalteak konpontzen laguntzeko.

Hurrengo egunean, urtarrilak 4, saio bi izango dira Sopelako Kurtzio kultur etxean, 18:00etan eta 19:30ean. Helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte; umeek, 3. Ballet-konpainia Uraltako Jekaterinburg hirian sortu zuen Maria Gusarenko ballet-irakasle eta koreografia-egile ospetsuak, 1994an. Orduetik hona, 9 eta 18 urte bitarteko hamaika haur eta gazte pasatu dira bertatik. Mosku, San Petersburgo eta Errusiako beste hiri nagusietan eman dituzte emanaldiak, eta hainbat sari lortu dituzte Errusian eta Bulgarian. ◀

hirulkagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko abenduaren 18tik urtarrilaren 13ra arte



hiruka.eus



Olentzero eta Mari Domingi itxaroten dituzte ume denek. © SOPELAKO UDALA

URIBE KOSTA

Olentzero eta Mari Domingi gurean

Hamabi hilabete itxaroten egon os-tean, gau berezia izango da abenduaren 24koa Euskal Herriko ume denentzat; baita hain txiki ez direnentzat ere. Bapo afaldu eta gero, lozorroan sartu, eta eguna argitzean, orduan hasiko dira arineketak eta komeriak. Hala ere, afaldu eta lotara joan aurretik, jolasteko eta abesteko aukerarik ez zaie faltako txikienei. Izan ere, bazter denak irribarrez eta algaraz gaiternezka egongo dira, Olentzeroren bisitagaz; leku askotan, Mari Domingi

agertuko da ikazkin zaharragaz bate-ra, kalez kale ibiltzeko, animaliek tiratutako gurdia- ren gainean.

Uribe Kosta eskualdean, ohi den legez, Neguri-Gobelara egingo du lehenengo bisita Olentzerok, zapatu honetan, abenduak 19. Eguaztenean (hilak 23), ostera, Barrikan, Erandio- landan, Itzubaltzeta/Romon... izan- go dugu; aipatutako auzo getxoza- rrean, umeen gutunak jasoko ditu. Beste gune batzuetan, opariak bana- tu egingo ditu: barbarako, Erandio- ko

Kukularra auzoan jaia egingo dute frontoi txikian, eta bertara hurbidu- ko da Olentzero, erregaluakaz. Hala ere, Eguberri egunera arte itxaron beharko dute neska-mutiek ikazki- nak etxean utzitakoak zabaltzeko.

Eguenean, abenduak 24, lehen ai- patutako toki guztietara bueltatzeaz gainera, falta zaizkion eskualdeko he- rriak bisitatuko ditu Olentzerok, eta Mari Domingi lagunagaz hainbat txo- ko ere bai. Leku gehienetan kalejiran joango dira, musikariek eta dantza-

riek girotuta; eta gozokiak banatuko dituzte kale-bazterretan, ume eta hel- duen artean. Helmugara helduta, txo- kolate beroa hartzeko aukera egongo da, hotzari aurre egiteko; eztarriak ere bero edukitzea komeni da, orduan ha- siko baitira Olentzeroren gorazarrez kantua eta eskariak.

Aldarrikapenerako tarterik ez da faltako egunean. Besteak beste, Itzu- baltzeta/Romoko Branka herriko ta- bernatik abiatuko da euskal preso po- litikoen aldeko kalejira, 19:30ean. ◀

Olentzero kalejiran

Barrika

Abenduak 23, eguaztena
19:30 Kalejira frontoitik udaletxera.

Berango

Abenduak 24, eguena
18:30 Kalejira Berangoetatik pilotalekura.

Erandio

Abenduak 23, eguaztena
17:00 Kukularran, jaia frontoi txikian; 19:30ean, opariak banatuko ditu Olentzerok.
18:30 Erandioigoikoan, kalejira auzoan zehar.

Abenduak 24, eguena

18:00 Astrabudian. kalejira Ignacio Aldekoa ikastetxetik Mendiguren plazara.

18:30 Altzagan, kalejira azoka zaharretik Irailaren 23a plazara.

Getxo

Abenduak 19, zapatua

18:00 Neguri-Gobelan, kalejira auzoan zehar.

Abenduak 24, eguena

17:00 Andra Marin, kalejira kiroldegitik Malakate parkera.

17:30 Algortan, kalejira Benantziotik San Nikolas plazara, Villamontetik (18:00) igaroz.

17:30 Itzubaltzeta/Romon, kalejira Santa Eugenia plazan hasita. 19:30ean, euskal preso politikoen aldeko Olentzeroa, Branka herriko tabernatik abiatuta.

18:30 Areetan, kalejira Eskola plazan hasita.

Gorliz

Abenduak 24, eguena

18:00 Kalejira Ibarretatik pilotalekura.

Leioa

Abenduak 24, eguena

17:00 Herrigunean, kalejira Elexalde Errotatik Kultur Leioara.

17:30 Lamiakon, kalejira auzoan zehar, metro-geltokian hasita.

18:00 San Bartolomen, Olentzerori harrera bertoko kulturgunean.

18:00 Txorierrin, kalejira auzoan zehar, bertoko kulturguneraino.

Lemoiz

Abenduak 24, eguena

Andraka

17:00 Andra- kan, harrera Rufino plazan.

17:30 Armintzan, kalejira autobus-geltokitik frontoiraino.

Errege Magoei ondoetorria, hainbat herritan

Uribe Kosta eskualdeko hainbat herri eta auzo bisitatuko dituzte urtarilaren 5ean, domeka, Errege Magoek. Besteak beste, 18:00etan abiatuko da Getxoko Andra Mari kiroldegitik Meltxor, Gaspar eta Baltasarren desfilea. Lehenik eta behin, Getxo eta Algorta zeharkatu-ko dituzte; ondoren, 19:30etik aurrera, Areetan eta Itzubaltzeta/Romon barre-

na ibiliko dira. Gorlizen ere, 18:00etan hasiko da desfilea, Eliz plazan; Itsasbi-de eta Areatza zeharkatuta, 20:00etan Plentziako Astillero plazara heldzea espero dute. Sopelari dagokionez, 18:00etan Larrabasterrako Urgixieta plaza ingurutik abiatu ostean, udal-etxean egingo diete ongietorria Ekialde-ko hiru mezulariei. Bitartean, Leioako



Gabonetako hainbat ekitaldi herriz herri

Barrika

Abenduak 23, eguaztena

17:30 Gutun eta makillaje tailerra, Txintxilandia liburutegian. Sarrera, doan.

18:30 Ipuin-kontalariak liburutegitik frontoira eramango ditu umeak. Ondoren, euskal dantzak eta trikitia, frontoian. Sarrera, doan.

Abenduak 27, domeka

12:00 Gospel-kontzertua The Lord taldeagaz, Andra Mari elizan. Sarrera, doan.

Berango

Abenduak 23, eguaztena

18:00 *Rock Eraok* (Ameztu) pallazo-ikuskitzuna, antzokian. Euskaraz. Sarrera: euro bat.

18:00-21:00 Gabonetako Gazte Parkea, pilotalekuan. Sarrera, doan.

Abenduak 26, zapatua

19:00 Gospel-musika kontzertua, antzokian. Sarrera: euro bat.

Abenduak 27, domeka

18:00 Potxin eta Patxin, antzokian. Euskaraz. Sarrera: euro bat.

Abenduak 29 eta 30

11:00-13:00 / 17:00-20:00 Haur-parkea, frontoian.

Urtarrilak 3, domeka

18:00 Errusiako Ballet Taldea, antzokian. Sarrera: 3 euro.

Erandio

Abenduak 19 eta 20

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak, Erandiogoikoko gizarte-etxean. Zapatuan, magia-ikuskitzuna egingo dute, 19:00etan, euskaraz. Sarrera, doan.

Abenduak 19, zapatua

19:00 Gabonetako *photocall*-a, Josu Murueta plazan. Antolatzailea: Radio Club Takolos.

Abenduak 20, domeka

17:30 Umeentzako diskoteka mugikorra, Erandiogoikoko Euskadi plazan. Doan.

Abenduak 22, martitzena

18:00 Gabonetako jaia, Altzagako azoka zaharrean. Antolatzailea: Erandioko Emakumeen Elkarte. Sarrera, doan.

Abenduak 24, eguena

17:00 Olentzerori harrera eta gutun-jasotzea, azoka zaharrean.

20:00 Antzezpena, Altzagako Irailaren 23a plazan.

Abenduaren 26tik 30era

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Gabonetako Umeentzako Parkea, Altzaga kiroldegian. Doan.

19:30 Umeentzako antzerkia (domekan, dantzaldia), azoka zaharrean. Euskaraz. Sarrera: 2 euro. Informazio gehiago: www.erandio.net

Abenduak 27, domeka

10:00 Elikadura Bankuaren aldeko ibilaldia, Josu Murueta plazatik. Antolatzailea: Athletic Goitiko.

Getxolandiako sarrerak gura dituzu?

Abenduaren 23tik urtarilaren 5era egongo da zabalik umeentzako Gabonetako parkea, Areetako Xake plazan. HIRUKAK bost sarrera bi-koitx zozkatuko ditu irakurleen eta bazkideen artean; abenduaren 22ra arte duzue parte hartzeko aukeral ◀

izen-ematea: hiruka@hiruka.eus / 944 911 337

Abenduak 24, eguena

Goizean zehar. Gabon-kantak Lirain abesbatzagaz, herrian zehar.

Leioa

Abenduak 19, zapatua

20:00 Leioako Gazte Orkestraren Gabonetako kontzertua, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 20, domeka

20:00 Leioako Musika Bandaren Gabonetako kontzertua, Kultur Leioan. Gonbidatuak: Orphea eta Vocalisse abesbatzak. Sarrera: 5 euro.

Abenduaren 26tik 30era

18:00 Gabonetan Antzerkira umeentzako antzezan-zikloa, Kultur Leioan. Euskaraz edo testu barik. Saio bakoitza: 5 euro (bonua: 20 euro). Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

Abenduak 31, eguena

12:00 Umeentzako Gabon zaharreko kanpaiak, Boulevarden. Leioako Merkatariek antolatuta.

Urtarrilaren 2tik 5era

10:30-14:00 / 16:30-19:30 Gabonetako parkea, Kandelazubietan. Ludoteka eta tailerrez gainera, magia, ipuin-kontalariak eta disko-festa egongo dira; baita Aldundiko suhiltzaileak ere. Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

Urtarrilak 2 eta 3

18:00 Ipuin-kontalariak, Kultur Leioan. Gonbidapenagaz, 946 072 576 telefono zenbakira deituta.

Lemoiz

Abenduak 26, zapatua

12:00-14:00 / 17:00-20:00 Ume eta gazteentzako parkea, Armintzako frontoian. Sarrera, doan.

Abenduak 28, astelehena

17:30 Txoborro magoaren ikuskizuna, Urizarreko gelan. Euskaraz. Sarrera, doan.



**kartelgintza**

**inprimategia**

**kopisteria**

**cianoplan**
ALTA RESOLUCIÓN

902 103 763

www.cianoplan.es



**saiazgetaria**
NUESTRO

**saiazgetaria**

**saiazgetaria**
ALTA RESOLUCIÓN

902 103 763

www.saiazgetaria.com



18:30 **Urizarren,** kalejira udaletxe zahararren aurrean hasita.

Plentzia

Abenduak 24, eguena

18:30 Kalejira Plazatxoatik Eliz enparantzara.

Sopela

Abenduak 24, eguena

17:00 Kalejira Larrabasterrako Urgixieta plazatik Sopelako Udaletxe plazara.

Urduliz

Abenduak 24, eguena

18:00 Kalejira Igeltzera inguruko aparkaleku publikotik Eloitza eskolara.

Abenduak 30, eguaztena

17:30 *Kulunkantauri* ipuin-kontaketa, Urizarreko gelan. Euskaraz. Sarrera, doan.

Plentzia

Abenduak 18, barikua

19:30 Bertso-jira musikatua, Eliz enparantzan hasita. Parte-hartzaileak: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, eta Oxabi erromeria-taldea.

Abenduak 19, zapatua

19:00 IV. Gabon Kantak, Eliz enparantzatik abiatuta. Plentziako Kantagunea taldeak egingo du kantu-jira. Parte-hartzea, libre.

Sopela

Abenduak 18, barikua

19:00 Sopelako pandero-joleen kalejira, frontoitik abiatuta. *Kaxeroz* jantzitza joan zaitez!

Abenduak 20, domeka

18:00 *Dixie eta matxinada* zonbia animaziozko filma, Kurtzion. Euskaraz. Sarrera, doan.

Abenduak 27, domeka

18:00 *Pinto, Pinto* (Anita Maravillas) antzezlanea, Kurtzion. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeak) / 5 euro (helduak).

Abenduak 28, 29 eta 30

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetako parkea, Urko kiroldegian. Sarrera, doan.

Abenduak 31, eguena

17:00 Urgixieta plazatik. Parte-hartzea. 2 euro. Izen-ematea: triationsopelana.org

Urtarrilak 1, barikua

13:00 *Urte barri barri* haur-animazioa, Kurtzion. Euskaraz. Sarrera, doan.

Urtarrilak 2, zapatua

19:00 Asier Kidam magoaren ikuskizuna, Kurtzio kultu etxean. Euskaraz. Sarrera: 3 euro, umeak; eta 5 euro, helduak.



Ttipi-ttapa

IRATXE
MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Gabonak: inbertsiorako garaia ote?

Garai zoriontsuak, fami-
liartekoak, asmo one-
koak datozkigu. Guztiok
han-hemenka ibiltzen
gara jai alai horien prestaketan;
egun hotzak izan arren, burua
bero izaten dugu, baina burua
bakarrik ez, patrika ere deskan-
tsu barik edukitzen dugu zorio-
neko egunotan.

Asko dira gure poltsikoeta-
tik irten behar diren ilusioak eta
ametsak, handia ere bete beha-
rreko gogoia. Gabonetako loteria-
rena ez al da ilusio handia? Gure
zakua husten dugu, gehiago eto-
rriko zaigulako itxaropenarekin.
Egia esan, ondo pentsatuta, in-
bertsioa ere izan daiteke, gehie-
netan ondo ateratzen ez den in-
bertsioa. Baina guztiok erosten
dugu, eta askotan ez aberaste-
ko, baizik eta ondokoari lagun-
tzeko asmotan. Bestela, etxean
begiratu zenbat loteria-txartel
daukazuen: euskaltegiak, futbol,
waterpolo, sokatira klube-
takoak... Aberastuko ez gaituen
aportazio txiki horrekin mesede
handia egiten diegu.

Gabonetan jan eta edan ere
egin behar dugu, onenean one-
na, muga barik, ez kantitatean ez
kalitatean. Hori ere inbertsiotzat
jo dezakegu kontuan hartzen ba-
dugu senitarteko guztion izozkai-
lua urtarrilerako betetzen dugula
erosi eta kozinatzen dugun janari
kopuruarekin.

Eta Olentzero, gure Olentzero,
seme-alaben gutunak irakurri eta
ulertzeko sakontze ikastaroa egin
beharko dugula pentsatu dugu,
beno, guk ordaindu eta Olentze-
rok egin beharko du: Nerf Elite
Stockade, Air Rebound Radio-
control, Mercato Saving Bank,
Machine Couture... Non geratu
dira aspaldiko «katxarritoak»,
txiza egiten zuen panpina...

Dena den, hori ere inbertsioa
da, etekin handia ematen digun
inbertsioa. Abenduaren 25eko
goizean, opariak zabaltzean, gu-
re etxekoan aurpegitxu alaiak
ikustea da errentarik handiena! ◀

Gabon-kantakaz belarriak alaitzeko hamaika aukera



Ondarreta korua martitzenean egongo da, 20:00etan, Areetako Santa Ana elizan. © ONDARRETA

Jaiegun hauetan, musikazaleen topaleku bihurtuko dira eskualdeko elizak eta kultur aretoak; bertoko zein kanpotik etorritako abestaldeek Gabon-kantak eskainiko dituzte. Hala ere, egongo dira kalez kale ibiliko diren taldeak ere.

Ohi den legez, jaiegun haue-
tan ez da Gabon-kontzer-
turik faltako Uribe Kostako
herrietan. Hemen bertan sor-
tutako edo kanpotik heldutako abes-
taldeek entzuleen belarriak alaituko
dituzte, tokian tokiko elizetan eta kul-
tur aretoetan antolatutako saioetan.
Besteak beste, bariku honetan, aben-
duak 18, Berango Antzokian eskaini-
ko du saioa Otxandategi abesbatza
berangoztarrak. Hitzordua 20:00etan
ipini dute; sarrera, doan. Bere aldetik,
Areetxo ganbera-abesbatza getxoza-

rrak kontzertu bi eskainiko ditu: bata,
bariku honetan (hilak 18), Areetako
Santa Ana elizan; eta bestea, martitze-
nean (hilak 22), Algortako San Martin
elizan. Entzunaldi biak 20:00etan ha-
siko dira; sarrera, doan.

Beste alde batetik, zapatu hone-
tan, abenduak 19, kantu-jira egingo
du Plentziako Kantagunea taldeak;
19:00etan abiatuko dira, Eliz enparan-
tzatik. Amaitzeko, egunean, aben-
duak 24, Gabon-kantak eskainiko ditu
Gorlizko Lirain abesbatzak, goizez, he-
rriko kaleetan. ◀

Puntueus-ek bost mila domeinu-izen gura ditu

Iazko Euskararen Egunean ipini
zen martxan .eus domeinua. Urte-
betean 5.000 domeinu-izen lortze-
ko erronka ipini zuen Puntueus fun-
dazioak; daborduko 4.500 zeuzkaten
aurtengo abenduaren hasieran. Hala,
jarritako kopurura heldu eta urteu-
rrera ospatzeko eskaintza berezia za-
baldu dute hilabete honetan: ohiko
prezioa %80 merkeago jarri dute. Do-
meinu-izena 9,95 euroan lortu ahal
izango da abendua amaitu arte.

Urteurrenagaz batera, Puntueus
Behatokia aurkeztu zuten abendua-
ren 3an. Erakunde horren arabera,
%17koa da euskararen erabilera Inter-
neten. Edo, zehatzago esanda, Inter-

neteko domeinu nagusietan dauden
webguneen %17k darabilte euska-
ra, batez beste. Klean baino zerbait
gehiago, baina ez asko. Azken neurke-
taren arabera, %13,3koa da euska-
ren erabilera klean, azaldu dutenez.

Enpresetako, erakunde publikoe-
tako eta euskararen zein kulturaren
arloko erakundeetako webgune askok
eman du .eus-erako saltoa. Puntueus
fundazioak zabalduetako azken datuen
arabera, Uribe Kostan 121 dira: 52, Ge-
txon; 30, Leioan; 19, Erandion; bosna,
Barrikan, Berangon eta Sopelan; bi,
Gorlizan; eta bana, Lemoizen, Plen-
tzian eta Urdulizen. ◀

info+: www.domeinuak.eus

Emanaldiak

Erandio

Abenduak 18, barikua

19:00 Erandioko Musika Eskolaren
Gabonetako kontzertua, Astrabuduko Josu
Murueta kultur etxean. Sarrera, doan.

Getxo

Abenduak 18, barikua

20:00 Anastasia Chernyavskaya (pianoa)
eta Luis Ibircuren (biolina) kontzertua,
Algortako San Martin elizan. Sarrera, doan.

Abenduak 23, eguztzena

20:00 Gabonak gabon kontzertua, Jatorki
abesbatzaz, Areetako Andres Isasi
musika-eskolan. Gonbidapenagaz.

Sopela

Abenduak 18, barikua

20:00 Eguberri Umama - Basque Christmas
Songs kontzertua, Kurtzio kultur etxean.
Parte-hartzaileak: Juantxo Zeberio
piano-jolea, Urepel abesbatza sopeloztarra
eta Ana Bejarano (Mocedades) kantaria.
Sarrera: 3 euro.

Leioa

Abenduak 19, zapatua

20:00 Leioako Gazte Orkestra, Kultur
Leioan. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 20, domeka

20:00 Leioako Musika Banda, Orpheo eta
Vocalisze abesbatzak, Kultur Leioan. 5 euro.

Barrika

Abenduak 27, domeka

12:00 Gospel-kontzertua The Lord
taldeagaz, Andra Mari elizan. Sarrera, doan.

Berango

Abenduak 26, zapatua

19:00 Gospel-kontzertua, The Upper Room
taldeagaz, antzokian. Sarrera: euro bat.

Algortan egingo du
azkenengo geldialdia
Bosteko 2015
erakusketa ibiltariak

Arriorriaga, Basauri, Leioa eta Zor-
notzatik igaro ostean, Algortan
amaituko da Bosteko 2015 erakuske-
taren bidea; abenduaren 27ra arte,
Torrene kaleko aretoan ikusgai egon-
go dira Ana Riaño (Bilbo), Roberto
Aguirrezabala (Sestao) eta Iker Serra-
noren (Iruñea) artelanak. Orduetegiari
dagokionez, astelehenetik barikura,
11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik
20:00etara egongo da zabalik; za-
patuetan, 12:00etatik 14:00etara eta
18:00etatik 21:00etara; eta domeketan
12:00etatik 14:00etara. Sarrera, doan.
Riaño eta Serrano margolariak dira;
Aguirrezabalak, oster, argazkigintza
lantzen du. ◀

«Euskal prosa aldatzeko, klasikoak aintzat hartzea proposatzen dut»

Kepa Altonaga idazleak

Back to Leizarraga liburuaz berba egin zuen abenduaren 17an, UKITXek gonbidatuta.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶


Gaur egungo euskal prosaren «argaltasunak» ikusgarri egiten ahalegindu da Kepa Altonaga (Loiu, 1958) algotartutako idazlea, *Back to Leizarraga* (2015, Pamiela) saiakeragaz. Liburuak hausnarketarako gonbita daroa bere baitan: inflexio-puntua izan gura du, gure prosa beste begi batzuek ira-kurtzen lagun dezakeena.

Gaur egungo euskal prosaren «kalitate-maila eskasak» bultzatu zintuen *Back to Leizarraga* idaztera?

Hori horrela esanda, gordinegi gertatzen da. Nork eta Xabier Amurizak liburu bitan esan zuena irakurri, eta horrek zer-nolako erantzun falta eduki duen egiaztatu nuen nik; inoiz aipatu dut isiltasunezko konspirazio bat dagoela. Amurizaren iritzi berekoa naiz: idazle klasikoek parra-parra erabiltzen zituzten arren, gaur egun ahaztuta dauden euskarazko hainbat baliabide daude; kalitate aldetik, prosa mugatu bat dakar horrek. Euskal idazleak abiapuntutik bertatik desabantaila bat dauka; eskuen artean momentu hauetan daukagun eredua ez da erabilgarriena. Ez da inguruan daukagun prosa ereduarekin homologagarria.

Profetikoa iruditzen zaizu Gabriel Aresti idazle bilbotarrak *Hiztegi tipia*-ren aitzinsolasean idatzi zuena?

Berak, gainera, horrelaxe adierazi zuen: «inor ez da profeta bere men-



Aresti edo Amuriza bezalako idazleei jaramon egin beharko geniekeela uste du Altonagak.

dean». Hala, mende beteko haustura eduki dugu klasikoekin; hainbat sintoma daude, han eta hemen ikus daitezkeenak. Gaingitu beharreko etena da. Izan ere, XX. mendean gauzatu den prosa-eredu horrek ez du «hegal-di transozeanikoetarako» baliabiderik eskaintzen; kontu domestikoetan eroso ibil gaitezke, baina itzulpenak bezalako arnasaldi luzeko lanetarako arnasestuka gabiltza, erdi asmatiko-edo.

Zer proposatzen duzu egoera horri buelta emateko?

Nik liburuan, han-hemenka, gako batzuk ematen ditut; baina argi dago arazoak dauzkagula lexikoaren zein sintaxiaren aldetik. Xabier Amurizak nahiko ondo azaldu zituen.

Lexikoan, labur esateko, beste irerkitasun bat behar dugu; gure klasikoek maileguen aurrean nola jokatz

zuten ikustea besterik ez dago. Horrek ez du esan nahi daukaguna baztertu egingo dugula beste zeozer hartzeko;

“Irakurle saiatu baten ikuspuntutik nabil. Ez naiz horretan aditua; ez nator hizkuntza-mundutik”

ez daukagunari atea eta leihoak ireki-ko dizkiogula baina.

Eta sintaxiari dagokionez?

Sintaxian, anaforikoak eta... erlatibo konkretu batzuk dauzkagu, ia tabu direnak edo guztiz estigmatizatuta daudenak gaur egun; muga bat jartzearen, XX. mendearen hasierara arte parra-parra erabili dira. Horiek ere

beharrezkoak dauzkagu; gure inguru kulturalan, horiexek dira erabiltzen diren egitura nagusiak.

Irakurle baten ikuspuntutik zabiltza.

Jakina. Ni ez naiz horretan aditua; ez nator hizkuntzaren mundutik, irakurle saiatua baino ez naiz aspaldian. Baina, horretan jartzen bazara, berehalakoan jabe zaitezke gure argaltasun eta ahuldadeekin.

Liburuak hausnarketarako gonbita egin gura du, ezta?

Bai. Hor dago iritzi bat, nik sinatuta doana; baina, badaude horretaz mintzatu diren Aresti edo Amuriza behi sakratu batzuk; horiek bazekiten edo badakite zeren gainean gauden. Jaramon egin beharko genieke. Inflexio-puntua izatea nahi nuke, baina ez dakit liburuak aldaketarik ekarriko duen. ◀

Gabon hauetan, hirukaren kide guztien artean,

ERRIGORAREN SASKI BIZOZKATUKO DITUGU

Egin zaitez HIRUKA BAZKIDE edo HIRUKA LAGUN eta abantaila ugariz gozatuko duzu!
Kontzertu, antzerki zein beste ekitaldietarako sarreren zozketetan lehentasuna, besteak beste.

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO:

epostaz
hiruka@hiruka.eus

telefonoz
94 491 13 37

agerkarian
www.hiruka.eus/zozketak

«Oso atsegin dut irakurri osteko gogoetak irakurle gazteengandik jasotzea»

Joseba Santxo Uriarte (Bilbo, 1962) algortarrak harro egin digu berba ALBEren 35 urteotako ibilaldiaz eta urteurreneko ekitaldiek edukitako arrakastaz; bere ustez, daukaten lantalde bikainak egindako lan handiari zor dio hori guztia bertso-eskolak. Hala ere, bestelakoa izan da Santxori elkarrizketa egiteko aitzakia: Haur Literaturaren arloan, *Vitoria-Gasteiz* itzulpen-saria eman diote bertsozale eta letragizon algortarrari, Roald Dahl-en *The Giraffe and the Pelly and me* (*Jira, Peli eta hirurok*) lanaren itzulpenari esker.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zorionak, Joseba. Pozik egongo zara, itzulpen-sari garrantzitsu hori jaso ostean.

Poz bikoitza hartu dut oraingoan. Lehenengo poza Roald Dahlen artelan hori itzultzeko aukera izatea izan zen. Eta bigarrena, atzetik ekarri duen saria.

Sari-ematea egiteko data berezia izan zen; abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean eman zizuten saria.

Oso egun egokia izan zen saria jasotzeko. Gainera, bost minutuko berbalditxoa egiteko aukera ere eman ziguten. Nik bertso pare bat bota nuen. Lehenengoan sariagatik, esker ona agertu nuen. Eta bigarrean gogoratu nuen euskalgintzan dihardugun militanteok –euskararen aldeko ekimen guztiak babesten eta txalotzen baditugu ere– eguneroko lanean sinesten dugula. Gero, berbaz ondo itzultzearen arduraz eta atseginaz aritu nintzen.

Sari hori Haur Literaturaren Euskadi Saritzat har daitekeela diozu. Zergatik?

Euskadi Sarietan, literatur itzulpenaren atalean, ez direlako bereizten nagusien literatura eta haur eta gazteena. Sari bakarra dago hor. Eta hori, zelanbait, Haur eta Gazte Literaturaren kaltean izaten dela begitantzen zait. Edozelan ere, argi dago Gasteizko Udalak apustu handia egin duela sariketa horren alde: 9.000 euro, diploma, sari-emate dotorea, bertan hitz egiteko aukera, bai eta 1.200 euroko aurrekontua saritutako liburuaren zabalkunderako.

Gasteizko eskola eta liburutegietan zabalduko dute. Irakurle kopuru handia ziurtatuta daukazu...

Bai. Eta horixe da, azken batean, egilearen zein itzul-tzailearen helburua: irakurlearengana iristea. Haur Literaturaren kasuan, ikastetxeak izaten dira irakurzaletasuna gehien bultzatzen dutenak.

Zer aurkituko dute *Jira, Peli eta hirurok* irakurtzen duten neska-mutilek?

Roald Dahl aurkituko dute. Edo horixe da nire nahia eta helburua, behinik behin. Dahlen estilo airosoa,

“Luxuzko egoera da taberna batera sartu, eta kafea HIRUKA aldizkariko ale eder bat irakurritz hartzeko aukera izatea”

jolastia, umoretsua, ironikoa, errimatua, irudimen handikoa... Nire ardura nagusia izan da, ingelesezko jatorrizko testuarekin fidela izan bai, baina euskarazko bertsioan ezaugarri horiek guztiak euskara erraz, jator, bizi eta adierazkorrean ematea. Eta di-rudienez, hori lortu egin dut, bost epaileek epaiaren *laudatio*-an adierazi dutenez. Diotenez, «Joseba Santxo Uriarteren itzulpena hain da bizia, naturala

eta irakurtzen erraza, ez baitirudi itzulpen-lana denik ere».

Zein ikasgai irakatsi gura du liburuak?

Neure aburuz, ametsak errealitate bihur daitezkeelako ideia, eta talde-lanaren espirituaren gorazarrea. Zeharka, bizimodua umorez, kantu errimatuz eta ausardiaz eramatearen alde ona erakusten da.

Gainera, liburuua erosiz gero, ongintzazko ekimenetan lagun daiteke, ezta?

Hori ere zeharkako abantaila da; ondo etorria. Liburu honen salmentatik ateratzen den %10 Roald Dahlen ongintza-erakundeei (www.roalddahl.com) emango zaie.

Liburuaren plazaratzea UK aldizkarian iragarri zenuen. Orain HIRUKAk eman du sariaren berri. Zelan ikusten duzu euskarazko hedabideen egoera Uribe Kosta eskualdean?

Sendo. Luxuzko egoera da herriko edozein tabernata-rara sartu, eta kafea HIRUKA aldizkariko ale eder bat irakurritz hartzeko aukera izatea. Bestetik, HIRUKA komunikazio-taldea sortu denetik, posibilitateak hirukoiztu egin dira, eta alde horretatik, onura hiru-koitza dakar euskal jasotzaileontzat.

Ez da aukeratzen duzun Dahlen lehenengo lana.

Aurretik *Revoltin' rhymes* (Errima errebeldeak) euskaratu nuen 2001ean, nik zuzentzen dudana Zubia ar-



Epaileen laudamena

Joseba Santxo Uriarteren itzulpena hain da bizia, naturala eta irakurtzen erraza, ez baitirudi itzulpen-lana denik ere. Oro har oso euskara landua badarabil ere, nabarmentzekoak dira testuan zehar ageri diren bertsoak: besterik gabe, zoragarriak eta jatorrak. Ipuinaren istorioa bera ere oso originala eta erakargarria da irakurle txikientzat: Jira jirafak, Peli pelikanoak eta Tximi tximinoak eskailerarik gabeko leiho-garbitzaileen taldea osatzen dute eta sekulako abenturak bizi dituzte. Itzultzaileak bikain transmititu ditu Dahlen idazteko era naturala eta bizia, eta nola ez, umorea. Osagai guztiak dauzka haur literaturaren arloan saritua izateko.

Bost aditu hauek epaitu dituzte lanak:

- Mari Carmen Beltran de Lubiano Glez. de Durana
- Karlos del Olmo Serna
- Itziar Diez de Ultzurrun Sagala
- Ramon Etxezarreta Aizpuru
- Usua Wyssenbach Ibarra

gitaletxearekin. Roald Dahlen ipuin klasiko errimatuak euskal kopla txikiaren neurrira ekarri nituen, euskal doinu kantatu ahal izateko. Rapa egiteko ere oso egokiak dira. Gogobeterik lotu nintzen itzulpen-lan hura eginda.

Gainera, orain arte argitaratutako liburu denetan, Haurren Literatura lantzea aukeratu duzu.

Lehenengo aukerak bide horretatik etorri zaizkit. Horrek ez du esan nahi nagusien arloan sartuko ez naizenik. Guztiarekin ere, onartu behar dut oso atsegin dudala irakurri osteko gogoetak irakurle gazteengandik jasotzea.

Azken urteotan itzulpengintza landu duzu. Noizko zure barren eta eskutik ateratako hurrengo sorkuntza-lana?

Sorkuntzan, bertsoez gain, eta saritutako narrazio batzuez gain, haurrentzako eleberritxo bat daukat, 1995ean argitaratua: *Ditxosozko ditxolaria*. Dagoeneko 15.000 ale saldu ditut, ezin kexatuko naiz, bada. Baina pozik handiena eman eta ematen didana ikas-tetxeetara joan eta haurren ahotik euren begitazioak eta akorduak entzutea da. Hori ere sari ederra da niretzat, behintzat.

Zein berezitasun (erraztasunak, zailtasunak...) dauka itzulpengintzak?

Prestakuntza eta denbora dira itzulpengintzaren berezitasunak. Prestakuntza, edozein itzulpen-lanetan

hizkuntza bi menperatu behar direlako, gutxienez idatzizko mailan. Eta denbora, ganorazko itzulpen bat egiteko, gutxienez, lau pauso eman behar direlako: bat, jatorrizko testuaren irakurketa pausatu eta sakona; bi, itzulpena bera, originala ahalik eta gutxien «traizionatuz»; hiru, itzulitako hizkuntzan murgildu, eta hizkuntza horren baliabide guztiak erabili, testu egokitu berria originalaren bikaintasun-mailaraino eramateko; eta lau, orrazketa on bat, akats ortotipografikoak ezabatu eta inon testua hobetzeko tarterik egonez gero, hobetzeko.

“Euskararen ezagutza oso handia da Getxon. Gainera, udalerrian badago euskaraz bizitzeko aukera”

Batxilergoa amaitu ostean, Industria Delineazioa ikasi zenuen. Hori horrela izanda, zerk erakarri zintuen letren mundura?

Halabeharrek. Baina denborak irakatsi dit letren eta zenbakien mundua uste dugun baino hurbilago daudela elkarrengandik. Edozein hizkuntza-azterketatan, idazlan bat agintzen denean, berba kopurua zehazten da. Hortik gora, bizimodurako-eta pri-

meran etorri zaizkit letrak zenbakien arloan, bai eta zenbakiak letren arloan ere.

Euskaltzaindiko B titulurako tesina egiteko, «Getxoko euskara» aukeratu zenuen. Gaur egun zein da Getxoko euskararen egoera?

Getxoko euskara esaten dugunean, gauza bi batera ari gara esaten: batetik, ezaugarri jakin batzuk dituen euskalki-aldaera, eta bestetik, Getxo udalerrian gaur egun erabiltzen den euskara. Lehenengoaz egin nuen tesina. Filologikoki, gai ezin interesgarriagoa da, eta oraindik ere ikertzen segitzen dut. Egiaren izenean esan dezagun euskararen aldaera hori gainbehera dagoela; edadeko jende gutxi baina ez du erabiltzen. Bitartean, euskara batuen ezagutza oso handia da Getxon –presentzia ez da horren handia, %3aren bueltan dabil–; biztanle asko garenez, zenbakiak potoloak dira: 8.000-10.000 hiztun gara. Gainera, Getxon badago euskaraz bizitzeko aukera.

Zubia argitaletxea ogibide, bertsolaritza da zure zaletasunik handiena?

Atsegin handia hartzen dut ogibide horretan. Irakas-kuntzarako testu-liburugintzan gabilta gehienbat; oso aberasgarria da. Bertsolaritzari dagokionez, abenduaren 12an egin genuen Algortako Bertsolari Eskolaren (ALBE) 35. urteurrenaren azken ekitaldi ofiziala. Urtean, lan pila egin dugu, eta emaitza paregabea izan da; ez da harrotzekoa, harro egotekoa baizik. ◀

Tenislariak onenak, Faduran

Euskal Tenisaren Gala

antolatuko dute zapatuan Fadurako kiroldegian, Euskadiko txapelkunak eta hainbat pertsona saritzeko.

Getxoko Fadura kiroldegiko Aretok nagusiak hartuko du Euskal Tenis Federazioak antolatutako Euskal Tenisaren Gala, zapatu honetan, 19:30etik aurrera. Bertan, besteak beste, eskualdeko Fadura, Jolaseta eta Abaroa klubetako hainbat kirolari saritzeaz gainera, pertsona eta talde ezagunak omenduko dituzte.

Bigarren multzo horretan dira Jorge Barrie eta Jorge Camiña. Lehenengoa Bizkaiko Tenis Federazioaren presidentea da, eta aurrean utziko du Jolaseta klubaren zuzendaritza, lantalde aparta eratu ostean. Bere merituen artean dago kirol-elkarte horren tenis-maila goratu izana, bai emaitzetan, bai parte hartzean. Camiñari dagokionez, Europako Tenis Federazioaren domina eta diploma emango dizkionte, 65 urtetik gorako betetan onena izateagatik.

Galan gorazarrea jasoko duten beste tenislariak izango dira Paco Sanchez Irungo Txingudy taldeko teknikaria, Gasteizko Peña Vitoriana eta Lara Arruebarrena jokalaria. Gipuzkoarra munduko banakako rankinean 86. postuan dago, eta binakakoan, 31. lekura heldu da.

Saridunen zerrenda luzean, Fadura eta Jolaseta tenis-elkarteak ia berdinduta ageri dira, euren kirolariek egindako balentriak direla-eta; alor-



lazko gala Jolaseta instalazioetan egin zen. © EUSKAL TENIS FEDERAZIOA

tarrek 17 sari jasoko baitituzte zapatu-ko galan, neguritarrek baino 1 gehiago. Fadurakoek, Iñigo Torre kadetea izango dute nagusi. Torrek hiru garaikur eroango ditu, banakako bi eta binakako beste bat, Mikel Lopezegaz batera. Klubeko beste saridunak dira Mikel Lopez bera, Naiara Uriarte, Juan Trinidad, Valentin Ruiz, Iñigo Santos, Jonathan Taborcia, Eric Beci eta Irati

Urbaneja. Horrez gainera, taldekako 7 garaipen eskuratu dituzte aurrean.

Jolaseta eta Abaroa

Jolaseta aldetik, Lucia de la Puertak batu ditu metal gehien aurretengo txapelketetan. Getxoztarrak Euskadiko txapelketa irabazi du kadete, gazte eta maila absolutuan. Binakakoan, txapelkunordea geratu zen, Mercedes

Jorge Camiñaren garaipenak

Zapatuan Europako betetan onena delako, saria eman eta omenaldia eskainiko diote Jorge Camiña getxoztarrari. Halere, horrek ez du jokalaria lasaitu, eta azken asteotan ere garaipenak batzeari ekin dio. Marbellako nazioarteko lehiaketan, Camiñak 65 urteko kategorian irabazi zuen, Iakov Atrokhov Erru-

siako txapelketa izan zuen aurret aurre finalean, eta 6-0 eta 6-1 nagusitu zitzaion. Binakakoan ere titulua lortu zuen, Javier Lazcano madrildarra. Murtziako La Manga klubeko lehiaketan sari biak ere eskuratu berri ditu Camiñak, ohi legez. Izan ere, Murtziako banakakoa jarraian irabazi duen 11. aldia da. ◀

Aristegui taldekideagaz batera. Garaikurrak eskuratu dituzten Jolaseta beste jokalaria honakoak dira: Ines Moreno haurra; Sofia Blanco eta Pablo Innerarity kadeteak; Sofia Blanco, Euskadiko binakako txapelketa berriro irabazi zuena Carmen Aizpurua-gaz batera; Tera Reparaz kimua; Ines Moreno haurra. Gainera, taldea 6 lehiaketa irabazi dituzte Negurikoek: 3 Euskadikoak eta beste 3 Hego Euskal Herri, Kantabria eta Errioxakoak.

Eskualdeko talde handietatik nahiko urrun bada ere, Barrikako Abaroa Tenis Klubak ere izango du zer ospatu: Euskadiko Txapelketan bigarren postua lortu zuen kimuen taldeak. Halere, aurretik hainbat tenis-ekimen izango dira bertan.

Egun osoko jardunaldia

Gala 19:30ean hasiko bada ere, jardunaldia goizeko 10:30ean abiatuko dute. Ordu horretan, Alejo Mancisidorrek berbaldea eskainiko du. Hizketaldiaren helburua izango da azaltzea klubaren batean jokatzeko dabilen neska bat zelan pasa daitekeen munduko teniseko hamar onenen artean lehiatzea. Izenburuan agertzen ez bada ere, jakina da Mancisidorrek Garbiñe Murguza nazioarteko jokalaria entrenatzen izan duen esperientziak egingo duela berba. Bost urtez, lan egin zuten batera teknikariak eta tenislariak, lan-harremana pasa den udan apurtu zuten arte. Mancisidorrek amaitu eta gero, 12:30ean, epaileen birziklatzeko saioa izango da. Bazkalostean, 17:30ean, Euskal Tenis Federazioaren Zuzendaritza batzartuko da Faduran bertan. ◀

Gabonetako padel eta tenis txapelketak, prest

Barrikako Abaroa Tenis Kirol Elkartek antolatuta, zapatu honetan, abenduak 19, abiatuko dira Gabonetako Gizarte Txapelketak, tenis zein padel kirolen. Izan ere, bietako jokalariek abenduaren 19tik 31ra izango dute urteko hitzordua. Tenislarien kasuan, gaur egun klubeko ikasleak izan eta goizeko 11:00etatik aurrera entrenatzen dutenak bakarrik parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Padelean dabilizanez, ordea, ez dute horrelako baldintzarik izango: gaur egungo ikasleek zein ikasle ohiek izango dute aukera.

Bestalde, Gorrizen, abenduaren

21ean, San Tomas egunean, hasiko da bertako Gabonetako Padel txapelketaren bigarren edizioa. Jokatzeko egunak bost izango dira: abenduaren 21a, 22a, 23a, 26a eta 27a. Gabon egunaren aurretik, partidak iluntzean jokatuko dituzte: 19:00etatik 21:00etara. Azken egun bietan, goizez izango dira norgehiagokak, 11:00etatik 13:00etara. Finalurrekoak eta finala izango dira, hurrenez hurren. Gorrizko txapelketan izena emateko azken eguna barikuan izango da, hilak 18. Horretarako, kultur etxera joan beharra dago, eta bost euro ordaindu. Trukean kamiseta bat eta opari bat har daitezke. ◀

Espainiako Federazioak De la Puerta deitu du

Lucia De La Puerta Uribe Kataluniako Sant Cugat herrian izan da, eguaztenetik barikura. Neguriko Jolaseta klubeko jokalaria bertako Errendimendu Handiko Zentroan egonaldia egin du Espainiako Tenis Federazioak deitutako beste 15 tenislari kadetegaz batera. Batutako 8 neska eta 8 mutilatik, De la Puerta izan zen euskal ordezkari bakarra. Egun batzuk lehenago, haur-mailako beste 16 jokalaria eron zituen Sant Cugatera Espainiako Federazioak, baina tenislari bat ere ez zen Euskal Herrikoa. Katalunian, hainbat proba fisiko egin ditu nerabe getxoztarrak, mugikorta-

sun, indarra, ahalmena, trebetasuna, koordinazioa, erresistentzia eta arintasuna neurtzeko eta hobetzeko. Gainera, hainbat osasun-kontrol zein azterketa tekniko pasatu eta egin ditu, bideo-grabaketan bidez. Topaketaren ostean, Federazioak jakinaraziko du zeintzuek bidaiatuko dute datorren urtean Europako Neguko Kopara. Pasa den aste-akabuan, berriz, getxoztarrak Espainiako Mapfre Txapelketa Absolutuaren lehenengo txanda gainditu zuen. De la Puerta Natalia Serrano Garciari nagusitu zitzaion, 6-3 eta 6-4 irabazita. Ondorioz, Marina Alcalde Bakariren aurka lehiatuko da. ◀

Bizkaiko Kirol Prentsaren Gala

Bizkaiko Kirol Prentsa Elkar-teak abenduaren 22an banatuko ditu urteroko sari eta garaikurrak. Ekitaldia Bizkaiko hiriburuko Gran Bilbao hotolean izango da, 22:00etatik aurrera. Hitzordua aurtengo protagonistak saritzeko eta 2016an etorriko diren garai-penen alde topa egiteko baliatu gura du kazetarien elkarte horrek.

Sari preziatuena Bizkaiko Kirolaririk Onenarena da, eta aurtan berau irabazteko bost hautagaietako bat Jon Rahm golf-jokalari barrikoztarra da. Beste hautagaiak dira Mikel Urrutikoe-txea pilotaria, Omar Fraile txirrindularia, Pablo Carrera tiratzailea eta Iker Enbeita igerilaria. Rham, 20 urte gaz,

Munduko afizionaturik onena da, eta Amerikako Estatu Batuetako zein Britainia Handiko lehiaketa irekietan bere lekua izango du datorren urtean. Urrutikoeak Lau t'erdiko eta esku-pilota txapelketak irabazi ditu aurtan. Fraile, ordea, mendi-sailkapenen buru izan da Euskal Herriko zein Espainiako bitretan. Carrera Rioko Olinpiar Jokoetarako sailkatu da, eta, azkenik, Enbeitak urrezko zazpi domina lortu zituen Joko Paralimpikoetan. Gainera, beste sari asko banatuko dira. Besteak beste, Laura Terreros Raspaseko arraunlariak kirolari gazte onenaren saria jasoko du. Arenas futbol-taldea eta Jolaseta klubeko belar-hockey jokalariek ere omenduko dituzte. ◀



Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapelduna izan da aurtan Terreros. © RASPAS



Gonzalez, ezkerrean, eta Gil, eskuman, dira eskualdeko taldeen ordezkariak. © E.T.X.F.

Espainiako Kopa, Gil eta Alicia Gonzalezentzat

az lege, aurtan ere Espainiako Ziklokros Kopa irabazi dute Saioa Gil Ranero Baque-Camposeko kade-teak eta Lointekek 23 urte azpiko Alicia Gonzalezek. Eurakaz batera, Aida Nuño eta Irene Trabazo nagusitu dira elite- eta gazte-kategorietan. Abenduaren 13an jokatu zen Valentzian Kopa-

ren azken proba. Nuñol eta Trabazok etapa bat ere irabazi zuten. Saioa Gilek borroka estua izan zuen Alba Gomez valentziarragaz, baina erasoei eutsi zien. Alicia Gonzalezen kasuan, Eider Merino taldekide balmasedarrak parte hartzerik ez izateak eman zion 23 urte azpikoen maillota. ◀

Hiru domina, Espainian Getxoko karatekentangat

Espainiako Gazte eta Kadete Karate Txapelketa arrakastatsua suertatu zitzaion Getxoko taldeari. Al-baceteko hitzorduan, Xabier Pereda, Ekaitz Pintado eta Julen Barrerasek osatutako taldea Espainiako txapel-dun gelditu zen Kata modalitatean, iaz hirurek lortutako titulua berretsiz.

Banakako Katan, lehenengo aldiz Espainiako Karate Txapelketaren historian finala Euskal Federazioaren bikideren artean jokatu zen: Xabier Pereda eta Ekaitz Pintado getxoztarrak, alegia. Derbian, Pereda nagusitu zen, eta Pintadok zilarrezko domina lortu

zuen. Getxoko Leire Peredak 21 urte azpiko Katan jardun zuen. Kanporaketa bitan nagusitu ondoren, lehiaketatik kanpo utzi zuten. Antzeko ibilbidea egin zuten Eneko Nieto sopoloztarrak eta Julen Barreras kadete getxoztarrak. Halere, Barrerasek ez zuen etsi, eta baztertutakoen bigarren aukeran itzuli zen lehiara, bosgarren postuan ipini arte. Getxoko azken ordezkaria Sara Pablos izan zen. Kadeteak borrokaldi bi galdu zituen, eta txapelketatik kanpo lotu zen. Kumiten, Iraia Rodriguez eta Ane Calvente lehenengo borrokaldian erori ziren. ◀

Zilar-ezteiak bete ditu Plentziako Jai-Alai frontoiak

Hilaren azken zapatuan, abenduaren 26an, Plentzia itsas hiribilduko Jai-Alai pilotalekuko 25. urteurrena ospatuko dute. Plentziako Udalak eta Peña Pelotazalek antolatuta, ekitaldia arrastian hasiko da, 06:30ean. Aurkezpena eta oroitzeko ekitaldia egin ondoren, pala-partida jokatu dute bertan. Eguna amaitzeko, bertaratutakoei mokadutxoren bat eskainiko diete, hamaika pasadizoren artean. Halere, aurretik, frontoi tresnen erakusketa paratuko dute Jai-Alai pilotalekuan bertan, abenduaren 15etik 22ra eta 16:00etatik 20:00etara. ◀

Pala motzeko kiniela jokatu da Sopelan

GMGZ Events enpresak antolatuta, abenduaren 27an, domeka, aurtengo azken pilota-kiniela jokatu da Sopelako udal pilotalekuan. Pala motzeko kiniela izango da, elite kategoriakoaren hirugarren proba. Abuztuan, modalitate eta kategoria bereko bigarren kiniela egin zen Bilboko Kirol-klubean, eta bertan, Ibon Garate getxoztarra eta Iker Gordon sopoloztarra nagusitu ziren. Arerio arriskutsuenak izan ziren Mikel Sanz eta Asier Muruzabal nafarrak eta Dan Nicol eta Benoit Chatellier frantsesak. ◀

info+: Facebook.com/Gmgzevents

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

Axpe Ibaizeta 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO)
Mug: 029 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberr@euskainet.net - www.luberr.biz

30. Urteurrena
XURRUT
Pasta - Bar - Musika Livean

Bertan egindako pizza & pasta
Udan Jazzaldia terrazan

946 771 389 GORLIZ xurrut.com

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Garbiketa industriala
- Ospital garbiketa
- Mantentze garbiketa
- Itsasontzi garbiketa
- Lan osagarria

-Elikagai Industriak igienizatzea garbitzea eta desinfektatzea
-Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

San Silvestre eguneko lasterketa



Giro polita bizi izan zen iaz San Silvestrean. © HIRUBI

Urteko azken egunean, abenduaren 31n, Larrabasterrako bigarren San Silvestre herri-lasterketa izango da, Sopelako Urgitxieta plazatik abiatuta. Hirubi triatloi-taldeak antolatu du proba, eta aurreratu duenez, lasterketa parte hartzekoa da, ez lehiatzekoa.

Adin denetako kirolzaleek korrika egin ahal izango dute, 17:00etatik aurrera, 400 metro eta 4 kilometro bitarteko zirkuituak osatzeko, adinaren arabera. Horrela, txikienak lehenengoak izango dira irteten. Zazpi urte bitartekoek 400 metro besterik ez dute lasterka egingo. 17:10ean, 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek, ordea, txikien zirkuitua birritan bete beharko

dute, 800 metro osatzeraino. Hamar minutu beranduago, adin denentzako paraolimpiar modalitatea izango da. Kategoria horretan, 1.200 metroko distantzia izango dute. Azkenik, 17:30ean, 15 urtetik gorakoak irtengo dira 1.000 metroko zirkuitu bati lau buelta ematera.

Hirubik iragarri du lortuko den diru dena Javi Conderen elkartasun-maratoiaren proiektuari emango diotela, Bizkaian fibrosi kistikoaren gaitzari aurre egiteko. Izan ere, euro bi ordainduz gero, izena eman daiteke Hirubiren webgunean, abenduaren 27ra arte, edo, guztira, 600 korrikalari inskribatu arte. ◀

info+: Triatlonsopelana.org/san-silvestre

Neguko boxeoa-saioa Andra Marin ikusgai

Boxeo Izarrak kirol-klubak antolatuta, zapatu honetan, abenduak 19, Getxoko Andra Mari kiroldegia neguko boxeoa-saioa berreskuratuko du. 18:00etatik aurrera, klubeko partaide diren hamar mutil gazte lehiatuko dira.

Algortako Boxeo Izarrak klubak baieztatu duenez, honakoak izango dira zapatuan borrokatuko diren boxeolariak: Joseba Urruturtxu, German Zubiaur, Eder Gomez, Asier Tale Humayor, Jon Leandro, Markel Garcia, Iñigo Lopez, Diego Uribe, Unai Iglesias eta Unai Lopez. Azken hirurek errepikatuko dute iaz abiatutako negu-

ko ekimen horretan. Era berean, Eder Gomezek eta Unai Iglesiasak badute eskarmentua Bizkaiko txapelketako finaleraino.

Sarrerak 10 euroan eros daitezke aurretik, eta 12 euroan, leihatilan bertan. Aretoko ateak 17:00etan zabalduko dituzte.

Euskadiko txapelketa, Algortan

Daborduko jakina da datorren urteko Euskadiko Boxeo Txapelketaren finala Algortan jokatu dela, Faduraiko kiroldegian. Martxoaren 19an izango da hori, 19:00etatik aurrera. Arduraduna Boxeo Izarrak kirol-kluba izango da. ◀



Uribe Kostako boxeoa sasoian dago. © IZARRAK



Itziar Lopez de Uralde oroitzeko 32. lasterketan, 1.400 korrikalarik baino gehiagok parte hartu zuten. Bederatzi kilometroko distantzia egiten arinenak izan ziren Elena Loyo Menoyo atleta arabarra eta El Hassan Oubaddi korrikalari marokoarra. © ITXARTU

Bizkaiko Elikagai Bankuaren aldeko martxa

Datorren asteko domekan, abenduak 27, Bizkaiko Elikagai Bankuaren aldeko elkartasun-martxa izango da Astrabuduan. Athletic Goitiko Taldeak antolatuta, ibilbidea goizeko 10:00etan abiatuko da Josu Murueta plazatik. Bertatik Goierriara joko dute kirolzaleek. Inguru hori zeharkatu ondoren, abiapuntura itzuliko dira 12:30ak aldera. Han, salda eta txorizoa doan izango dituzte indarrak batzeko. Era berean, gura dutenek aukera izango dute behartsuenak laguntzeko, elikagaiak emanez. Bilketa Josu Murueta plazako ataripeetan egingo dute, Etxegorri kalearen alboan. ◀

Kirol-elkarte asko, sostengu legal barik

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirolerako Zuzendaritzak prozedura abiatu du 3.000 bat kirol-klub eta kirol-elkarte bere erregistrotik ofizioz ezabatzeke. Klubek ez zituzten estatutuak moldatu 2010eko 163. dekretura egokitzeko, nahiz eta horretarako epea 2011ko uztailera arte izan zuten. Uribe Kostan, dozenaka dira kaltetutakoak, tartean Getxo Arraun Taldea, Black Belt, Leioako Emakumeak edo Kurene. Gaia konpontzeko azken aukera izan dute, pasa den zaturte arte, eta lortu duten ikusteke dago. Erregistrotik ezabatzeak ez dakar klubaren desagertzea, baina arazo asko zor dezake. ◀

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37

5€



LEIRE
ALGORTA
Kuadrillaren partez

Zorionak *teacher* Leire! Primeran pasatuko dugu asteburuan zure urtebetetzea ospatzen... jarrai ezazu beti bezain alai, muxu erraldoiaaa!



ERIKA
LEIOA
Lagunen partez

Zorionak Erika! Ederto ospatu eguna eta mosu handi bat Frilan Handiko lagunaren partez. Ez ahaztu merendola zor diguzula... Maite zaitugu!!!



IRATXE ETA
ZURIÑE
SANTURTZI
Keparen partez

Abenduaren 27an urtebete izango da senide eta lagunakaz elkar maite dugula ospatu genuenetik. Zorionak neskak! Maite zaituztet!



ANA
ITZURBALTZETA
Kuadrillaren partez

Zu beti bezain alai; beti parrandarako prest! Ez al da zentzudun bihurtzeko garaia? Kar, kar. Txantxa da; segi horrela! Zorionak Anuski!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ikusteko denbora luze itxaroten ibili ostean, Star Wars-en film berriak dezepzionatuko zaitu. Halere, Athleticek poztasunen bat emango dizu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Olentzerok berriro ere ikatz-multzoa ekarriko dizu, aurreko urteotan legez. Kontuz ibili jatean, azukre asko du-eta.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zorroztu zure arkatz-bilduma, Olentzerori gutuna idazteko folio-pakete osoa xahutu behar izango duzu-eta.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aspaldian izan ez duzun elkarriketa gozoa biziko duzu, kafe katilu baten bueltan. Ez utzi ihes egiten harreman horri.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Sagardoa erraz sartzen da, baina hurrengo egunean biharamun handia eragiten du. Kontuz ibili San Tomaseko azokan.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Indarra ez da zugaz izango datozen asteotan. Zor-tea eta maitasuna ezta ere. Baina gutxienez, zure gustuko kirolariak irabaziko dute.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Oparitu gura zenion hori ez da hain erraz topatze-koa, batez ere azken unerarte itxaroten baduzu. Eskerrak edozegaz konformatzen dela.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gabonetako oporretan zer egin ez dakizunean, bota begiradaxo bat kultur agendari. Gustuko kontu asko izango duzu. Ez zara damutuko.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Gabonetako oporretan, kanpora irteteko aukera sortuko zaizu. Zuk zeuk erabaki plana zure interese-koa den ala ez.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Familiagaz harremanak ugalduko dituzu egunotan. Espero zenukeenaren aurka, atsegingarri egingo zaizu.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Gabonetako jatordu oparoak direla-eta, kilotxoren bat hartuko duzu. Badakizu: zein gozagarria den korrika egitea negu gorrian!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zortea zure alde dago. Probatu ahal duzu zozketa denetan? Dirua xahutu barik: HIRUKA honetan bertan hainbat aukera duzu!

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Elliott Murphy-ren kontzerturako 5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Urtarrilak 16, 20:00; Kurtzio kultur etxea (Sopela); 3 sarrera.
Urtarrilak 17, 20:00; BBK Aretoa (Bilbo); 2 sarrera.

Producciones Serranoren eta Sopelako Udalaren ekimenez, Elliott Murphyk Sopelan eta Bilbon eskainiko dituen emanaldietarako sarrerak ditugu. Gura badituzu, **urtarrilaren 11 baino lehen**, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Sudokua

				5			8	
2					7			
			9	3			1	4
							9	
	8	5		6				2
					9	4	5	
	2			3	8			
				7	6			
7								4

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

4	9	8	5	6	2	1	3	7
3	2	5	9	7	1	4	6	8
1	7	6	8	3	4	9	2	5
9	5	4	6	2	8	3	7	1
2	1	3	4	9	7	5	8	6
8	6	7	3	1	5	2	9	4
7	4	1	2	8	3	6	5	9
5	3	9	7	4	6	8	1	2
6	8	2	1	5	9	7	4	3



Landare inbaditzaileak

Ekosistemaren oreka aldatzeko eta bioaniztasuna galtzeko arriskua

Landare inbaditzaileak ugaritu egin dira azken urteotan. Espezie exotikoak bertakotu, eta garapen handia izan dute, bertokoak baztertuz eta oreka ekologikoa aldatuz. Ekosistemetan, landare inbaditzaileen ugalketa aniztasun biologikoa galtzeko arrazoiatariko bat da.

IKER RINCON MORENO

Uraren Euskal Agentziak amaitutzat jo du sei-garren urtez jarraian aurrera eroan duen kanpaina: Euskal Autonomia Erkidegoko ibai-arroetan dauden landare inbaditzaileak kendu eta kontrolatzea. Lau hilabete behar izan dituzte Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ibaien erriberetan eragin gehien duten espezieei aurre egiteko, besteak beste: *Fallopia japonica*, *Arundo donax* (kanabera arrunta), *Baccharis hamilifolia* eta *Budleja davidii* (tximeleten zuhaixka). URAk, guztira, 150.000 euro inbertitu ditu kanpaina hori garatzeko; 80.000 metro koadroko eremuan lan egin dute. Uribe Kostan, zehazki, Plentzian *Fallopia japonica* eta *Arundo donax* espezieen kontra egin dute; Berangon, Getxon eta Sopelan, berriaz, *Fallopia japonicari* egin diote aurre.

URAk lau landare inbaditzaile horien kontrako kanpaina abiatu duen arren, mota horretako landare gehiago aurki daitezke Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, baita gure eskualdean ere. Gorka Menendez Bacea etnobotanikari galdakoztarrak jakinarazi duenez, Uribe Kostan bestelako landare inbaditzaileak ikus daitezke: *Cortaderia selloana* (panpa-belarra), *Loni-*

cera japonica (ahuntz-hostoa edo atxaparra), *Carpobrotus edulis* (katu-azazkala), *Robinia pseudoacacia* (sasiakazia), *Acacia dealbata* (mimosa), *Acacia mela-*

Ekosistema naturalak desitxuratzeaz gainera, bertoko ekonomian ere kalteak sortitzakete landare inbaditzaileek

noxylon (akazia beltza), *Eucalyptus* (eukaliptoia), *Pinus pinaster* (itsas pinua) eta *Dittrichia viscosa* (arkakusobelarra), berbarako. Horiez gainera, *Paspalum*, *Cyperus*, *Agrostis* eta *Lonicera* generoko landareak ere gurean ere badirela ohartarazi du.

Iragan abenduaren 13an, domekan, eskualdeko landare inbaditzaileen inguruko berbatxangoa egin zuten Erandioko Berbots, Sopelako Aitxu! eta Getxo-ko Egizu euskara-elkartek, etnobotanikari galdakoztarrak lagunduta. Berbatxangoan, Sopelako hondartzak aztertu zituzten, *Carpobrotus edulis* espeziea

ikusteko. Ondoren, itsaslabarrak bisitatu zituzten, eta bertan *Cortaderia selloana* eta *Fallopia japonica* landareak ikusi zituzten, batez ere. Jarraian, autobusa hartu eta Barrikarako bidea hartu zuten; bertan, duela urte batzuk hutsik dagoen obra batera joan ziren, mugitutako lurretan zer-zelako landareak hazten diren ikusteko: *Cortaderia selloana* eta *Dittrichia viscosa*, esaterako. Plentziako paduretara joan ziren ostean, *Rovinia pseudoacacie*-k bertoko haritzen lekuak zelan hartzen duten ikusteko. Azkenik, Gorkizko dunak bisitatu zituzten, «berezko landareen eta landare inbaditzaileen arteko tartea ezagutzeko», Gorka Menendez berbetan.

Diotenez, gizakiak alde batetik bestera mugitzea-ri ekin zionean hasi zen landare inbaditzaileen fenomeno. Hala ere, globalizazioaren eraginez, merkantziak munduko puntu batetik bestera garraiatzen hasi dira, landareak tarteko, eta horrek landareen «kolonizazioa» areagotu egin du. Egoera horri gizakiak lurrian eragindako aldaketek eta eraikuntza masiboak eta baserri-giroen murrizteak gehitu behar zaizkiola dio galdakoztarrak. «Hiru aldagai horiek azeleratu direnetik, landare inbaditzaileen arazoa handitu egin da, azkenengo 30 urteotan, batez ere», adituaren arabera.

Landare exotiko vs inbaditzaile

Etnobotanikariak azaldu duenez, landare inbaditzaile denak landare exotikoak dira, hau da, kanpotik

*Cortaderia selloana* (panpa-belarra) Txipion.*Robinia pseudoacacia* (sasiakazia) Algortan.*Arundo donax* (kanabera arrunta) Lemoizen.

datozenak eta bertako historia ebolutiboan presente egon ez direnak. Hala ere, landare exotiko guztiak ez dira zertan inbaditzaileak izan. Baliteke espezie exotiko bat gure inguruan sartzea, «baina ugaltzeko gaitasun handirik ez badu, ez du zertan inbaditzaile izan», argitu du etnobotanikariak. Izan ere, inbaditzailea izateko ugaltzeko gaitasuna behar du, hau da, «gai direnak ekosistema naturaletan ezartzeko eta bertoko landareen lekua hartzeko». Halaber, ugaltzeko eta zabaltzeko ahalmen oso handia daukatenean, landare horiei 'inbaditzaile-eraldatzaile' esaten zaiela dio Menendezek.

Landare inbaditzaileak normalean gizakiak eraldatutako ekosistemetan ezarri ohi dira, esaterako obra-eremuetan eta bide bazterretan. Ekosistema «ahuletan» ere aurki daitezke, berbarako: dunak, erreka bazterrak, padurak eta itsaslabarretan, eta abarretan. Azken inguru horietan, esaterako, oso ohikoak dira *Carpobrotus edulis* landareak ikustea. Landare inbaditzaile-eraldatzaileek, aldiz, ekosistema naturaletan ezartzeko gaitasuna dute. Adituak azaldu duenez, gizakiak gehiegi eraldatu ez dituen eremuetako ekosistemak «indartsuagoak» izaten dira; halere, azken espezie horiek inguru horietan ezartzeko ahalmena dute, bertako flora guztia baztertzea eraginda. «Horiek izaten dira arriskutsuenak», ohartarazi du galdakoztarrak: *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, *Baccharis hamifolia* eta *Carpobrotus edulis*, berbarako.

Panpa-belar delakoa oso hedatuta dago Uribe Kostan; erreka inguruetan *Fallopia japonica* da nagusi, eta itsaslabarretan, berriz, *Carpobrotus edulis*-a gero eta ugariagoa dela ohartarazi du adituak. «Landare inbaditzaileen hazkundera esponenziala da; hasieran baliteke ez ikustea, baina handik eta urte batzuetara abiadura handia har dezakete euren hedapenean».

Landare inbaditzaileen eragina

Gorka Menendez etnobotanikariak argitutakoaren arabera, landare inbaditzaileek autoktonoen lekua hartzen dute, «eta horrek kalte trofikoak eragiten du». Hau da, bertoko landareek betetzen dituzten funtzioak betetzen hasten dira landare berriak; ondorioz, bioaniztasuna itzel murrizt daiteke. Berbarako, 20 edo 30 espezie dituen ekosistema batean landare inbaditzaile bat ezartzen denean, eta berori oso erasokorra bada, baliteke bera gailentzea eta autoktonoak baztertzea: «Kasu horietan, espezie bakar-bakar batekin topo egin genezake», ohartarazi du adituak. Kontuak horrela, lur-eremu handiak okupa ditzakete, ondorioz, bertan landare autoktonoen agertzea galarriz. Horrenbestez, bertako landareez elikatzen diren animaliak ere beste lekuren batera alde egin beharko lukete, eta, hala balitz, tokiko animalien populazioa murriztu egingo da. Bestelako ondorioren bat ere izan dezake, adib.: ekosistema eraldatzeaz gainera, bertoko ekonomian ere eragin lezakete landare inbadi-

tzaileek. Besteak beste, *Cortaderia selloana* espezieak baserri bateko landak edo larreak bere eginez gero, bertako abereek ez lukete bazkarik izango, «eta horrek kalte ekonomikoa eragingo lioke abeltzainari, abereek panpa-belar horiek ez dituztelako jaten».

Zer egin espezie horien aurka?


Landare-mota horiei aurre egiteko hartu beharreko «urgentziatzko» neurriak horiek guztiak kentzea dela dio aditu galdakoztarrak. Halere, horiek kendu baina

Espezie inbaditzaileei aurre egiteko, horiek ebaki ostean, bertoko ekosistemen egitura hobetu beharra dago

ekosistemak baldintza «kaskarretan» jarraituz gero, berriro agertuko direla ohartarazi du. Hori dela eta, landareak moztu ondoren, bertoko landareak erein eta bertoko ekosistema-egitura hobetu beharko litzatekeela uste du. Itsaslabarrak eta dunak kenduta, Uribe Kostako ekosistema gehienak artadiak eta larreak dira, eta azaltzen duenez, «ondo egituratutako artadi batean oso zaila da landare inbaditzaile bat sartzea, ez duelako tokirik; espezie autoktonoak ondo egituratuta egongo lirateke, eta euren arteko harremana egokia litzateke». ◀

Lehen/Orain

Lemoiz, 1960



Erretratua

Urtzi Azkorra Roca

Olentzeroren lagun mina da barrikoztarra.

Hurbil-hurbiletik ezagutzen du ikazkin opari-emaile ezaguna Azkorrak. Mungiako Izenaduba basoko baserrian Olentzerok egiten dituen egonaldien berri ere badu.



Euskal Herriko herri denetatik pasatzen da urtero Olentzero, neska-mutilei, gazteei, helduei eta aitita-amamei opariak banatzeko, ala ikatza; behar dezente, beraz, eta horregatik laguntzaileak izan ohi ditu.

Orain dela lau urte, Gabonetan Barrikan umeentzako ekitaldirik ospatzen ez zutelako kezkatu zen. Hainbat lagunegaz batu ostean jakin zuen ezin zela abenduaren 24an egin, ume zein gurasoak Sopelara joaten zirelako, «jende barik geratzen zelako Barrika». Hala, bisita hilaren 23an antolatzea erabaki zuten. Ordutik neska-mutil barrikoztarrak pozarren daude, eta Olentzerok bertoko laguntzaile berezia izan ohi du: Urtzi Azkorra Roca, 33 urteko barrikoztarra. Berak kontatu dizkigu Olentzeroren gaineko zenbait kontu eta bitxikeria: «Gabon aurreko kalejirez eta opari-banaketa gainera, oso esperientzia polita iruditzen zaio Olentzerori Izenaduban ere urte osoan sendiak bisitan hartzea». Olentzerok Azkorrari zera aitortu dio: «de-

nek egiten didate kasu; nire historia kontatzen diet, eta oso ondo pasatzen dut. Euskal Herri osotik 30.000 bat ume datoz urtean». Bere esanetan, Olentzero ahalegintzen da euskal mitologia ezagutarazten, eta Anbotoko Mari, Tartalo, Basajaun eta jentil denen berri ematen die; «ikatz zelan lantzen duen azaltzea ere

“ Pintxon txoriak den-dena ikusten du, eta berak kontatzen dio nor portatu den ondo ”

gustuko du». Eta onartu dio opari-banaketak kale egingo lukeela bere laguntzaileengatik ez balitz; berbarako: «Pintxon txoriak den-dena ikusten du, berak kontatzen dio Olentzerori nor portatu den ondo, eta nor, gaizki». Txikienei, Olentzeroren mezu hau ere igorri gura die: «opari asko eroango banizkizue, beste ume batzuk opari barik lotuko lirateke».

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua